

tti pi-ttapa

253. zenbakia • 1999ko maiatzak 6 • XIX. urtea



18 Malerreka: TTIPI-TTAPA TELEBISTAK antena jarri du Donezteben

Hemendik aitzinera Malerreka eta Bertizaranako etxeetan ikusiko da TTIPI-TTAPA TELEBISTA, Askin mendi kaxkoan jarri den antenari esker. Horretarako aski duzue telebistan 62. kanala sintonizatzea.

4 Erreportaia: Urte hondarrerako gas naturala jarriko dute Bera eta Lesakako etxeetan

Lehendik inguruko fabrika haundietan erabili izan den erregai hau etxeetara eramateko obrak eginen dituzte aurtengo uda baino lehenago. Leitzan ere proiektua egin omen dago.

6 Iritzia: Anorexia: gazteen eritasuna, eritasun gaztea

Eritasun berria da anorexia, baina gero eta gazte gehiago erortzen da bere hatzagarretan.

8 TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



HERRI URRATS, maiatzaren 9an

Senpereko aintzirak jendez gainezka eginen du berriz ere

3



MUEBLES AMETS

mobleak orokomestak

NEURRIRA EGINDAKO MOBLEAK

Bidasoa 45-60

BERA

Tfnoa: 948 630537



Osasungintzako Profesionalak

Jorge Sopena Colombero

**hortz
klinika**

© 948 630647
Itzea 1, 1. • BERA

**Begoña
Mitxelena
Sagastibeltza**

KIROMASAJISTA

Elizgibela, 6 • DONEZTEBE

☎ 948 45 07 43

**MAGNETISTA
NATUROPATA**

IKUSMENA: Miopia, hipermetropia, estrabismo, begietako infekzioak, begi alferrak.

ERREABILITAZIOA: Artrosia, artritis erreumatoidea, lunbalgiak, zerbikalgiak, buruko minak, birusak, kolesterol, erreumatismoa, gota, prostatakoak.

**OPERAZIO ONDORIOETATIK
INDARTZEKO TRATAMENDUAK**

San Marcial, 7-4. IRUN ☎ 943 623 055

BELARRA

Herbodietetika – Janaridenda

☎ 948 510192 • Elbarren, 35 • LEITZA



Masajeak
Akupuntura
Homeopatia
Naturopatia

Gorosabel 36 - I.D. • ☎ 943654255-943 671635 • TOLOSA

Jose Luis Bihotza
IRURITA RUBIO
HORTZ KLINIKA

DONEZTEBE

Rosa Seminarioa, 19
948 450 267

LEITZA

Manuel Lasarte, 7
948 610 713

LARUN

Hortz klinika

Guy RANDÉ Doktorea
ODONTOLOGOA

ORDUTEGIA

Astelehen, ortzegun eta larunbatetan,
arratsaldeko 3,30etatik 7,30etara.

San Esteban, 21 behea • ☎ 948 631 057 • BERA

DATUAK.....

❖ *Igande huntan Senperen burutuko den 16. Herri Urrats ekitaldiaren koordinatzailea da Argi Perurena.*

❖ *Seaskak eskaintzen duen erakaskuntzak lau sail dauzka: Ama ikastola (2-5) urte eta lehen maila (6-10 urte): 18 ikastola daude Iparralde osoan.; Kolegioa (11-14 urte) Kanbo eta Ziburun eta Lizeoa (15-17 urte) Baionan.*

❖ *Seaskan 130 erakasle ari dire lanean.*

❖ *1994an Seaskak hitzarmena sinatu zuen Frantziako Hezkunde Nazionalarekin.*

TESTUA:
FRANCK DOLOSOR
ARGAZKIA:
EGUNKARIA

✍ **Argi PERURENA** *Herri Urratsko koordinatzailea*

“Herri Urrats oraindik beharrezkoa da, egoera ez baita aldatzen”


BADU HAMASEI URTE HERRI URRATS EGITEN DELA. AURTEN ZERTARAKO OSPATUKO DA?

Aurten ere Senpereko besta beharrezkoa da, zoritxarrez egoera ez baita aldatzen. Bote-re publikoek lan guti egiten dutelako Herri Urrats beti segurtatu behar dugu dirua biltzeko. Hori hiru sailtan banatzen da gero: Seaska Federazioaren funtzionamenduentzat, Kanboko Xalbador ikastegiko lanak egiteko eta bertze euskal eskolak laguntzeko ere. Denbora berean, erakaskuntza sailan euskarari tokia emateko egiten dugu Herri Urrats.

ZERTAN DIRA GAUR EGUN IPAR EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK?

Orokorrean hartuz, ez dira biziki osasuntsu, nahiz eta lan handia egin. Xalbador ikastegia osoki pagatua da, baina lan ainitz bada orain. Gero, duela guti, Ziburun bigarren kolegioa zabaldu da eta orain lagundu behar da. Bertzalde, hirugarren kolegioa ere beharrezkoa ikusten da, barnealdean ez baita halakorik. Herrietako lehen mailak ere laguntza behar dute, Hazparne, Amikuze edo Garazin bezala.

► *“Botere publikoek lan guti egiten dutelako Herri Urrats beti segurtatu behar dugu dirua biltzeko. Denbora berean, erakaskuntza sailan euskarari tokia emateko egiten dugu.”*



«Antolakuntza aldetik errexago da Herri Urrats urtero Senperen egitea».

ZOIN DIRA AURTENGO BERRIKUNTZAK?

«Euskara hazi euskaraz» leloa izatea, logoa Kukuxumuxuk egin duelarik. Egia da euskara hazten doala, urrats ainitz eman dela –Seaska berak 30 urte betetzen ditu aurten–, halere lan ainitz bada oraino egiteko. Bertzalde, aurten Deabru Art talde-

ak apainduko ditu aintziraren bazterrak. «Urratsak» ere saldu nahi ditugu 100 libera ala 2.500 pezetan. Ideia da ibilbide bat egitea aintziraren inguruan hainbat etapekin. Gerdialdi bakoitza salduko da euskararen aldeko pertsona ala taldeeri.

Itsas-bela batasunak ur jokoak proposatuko ditu lehen aldikoz ere. **ANTOLATZE LANEAN JENDE AINITZ ARITU BEHARKO DA, EZ DA HAILA?**

25 lan batzorde osatzen dira eta 50 lagun

urte osoan ari dira gai desberdinetan. Igandean berean, Euskal Herri osoko 2.000 jende izanen dira lanean.

HERRI URRATS BETITIK SENPEREN OSPATZEN DA. HORTXE SEGITZEA PENTSATZEN DA?

Egia erran, untsa litzateke tokiz aldatzea, baina ohitura hartu da Senpereko aintziran. Antolakuntza aldetik denentzat errexagoa da hala segitzea eta bisitarientzat ere bai.

Orain denek badakigu non dugun hitzordua maiatzaren 9an!

GAS NATURALA

Bera eta Lesakako 400 familiarentzat

Azken boladan gasaren aferak solasbide aunitz eman du herri hauetan. Inguruko fabrika haundienek zenbait urte daramate gas naturalarekin lanean, eta hori probetuz, herritarrei ere aukera eman nahi zaie etxeetan erabiltzeko. Aurtengo udatik aitzinera, hala nahi duten lesakar eta beratarrek etxean hartzen ahalko dute erregai hau, eta hemendik bi urtera Leitza ezarriko omen dute. Hala ere, zailxeagoa izanen da erregai horrekin gainerako herriak hornitzea, arras garestia baita gasa herri batetik bertzerara garraiatzea. Erreportai honetan eskualdeko herrietan gaur egun erabiltzen diren erregaiez mintzatuko gara.

TESTU ETA ARGAZKIAK: **ASIER GOGORTZA**



Beran kamikak moldatzeko obrak probetü dituzte gas naturalaren tuberiak lur azpitik sartzeko.

Lesaka eta Berako etxe aunitzetan 2000. urtea baino lehen gas naturalarekin ibiliko dira sukaldeak, urberogailuak eta kalefakzioak. Gas Navarra enpresak adierazi duenez, bi herrietan gas mota hau jarri nahi duten 400 familia biltzen diren bezain laster hasiko omen dira instalazio lanak. Ez berehalakoan, baina pixkan-pixkan oraingo butano botilak historiara pasatuko dira behin-betikoz, garbiagoa eta erosoagoa den erregai bati tokia egingez. Garbiagoa, batez ere metanoz osatua dagoelako eta ingurugiroa ez duelako kutsatzen. Erosoagoa, ez baita butaneroa noiz pasatzen den esperoan egon beharko, eta ez dagoelako arriskurik dutxaren erdian ur berorik gabe gelditzeke.

Dena den, gas naturala tuberiaztuberia eskualdeko bertze herrietara eram-

tea garestia da, garestiegia, eta momentuz enpresa haundien ondoan dauden herriek bakarrik hartzen ahalko dute etxeetan, Leitza adibidez. Horregatik, gas propanoa da gainerako herrietan butanoaren alternatiba bakarra.

Propanoa eta butanoa

Prezioz ez da ia diferentziarik bata eta bertzearen artean, nahiz eta gasolinaren gisan gasaren prezioa ere aldakorra izaten den.

Hala ere, betiko butano botilei propano depositoak gailentzen ari zaizkie azken urteetan, erosoago eta seguruagoak baitira zinez. Gisa honetan, zenbait tokitan propano deposito komunitarioak jarri dituzte herri guziarendako, Arantzan, Elgorriagan eta Leitza errate batera. Azken honetan zatika ari dira egiten gasifikazioa, Elizondon bezalaxe, eta Donezteben eta Sunbillan ere akautzeko puntuan omen daude. Labaien berriz, obra egin beharra da baina proiektua egon badago.

Behin herrian barna gasa garraiatzeko hodiak sartzen direlarik, bizilagunek alta emateko eskaera egin behar dute Herriko Etxean, gasa euren etxeko sukalderraino eramateko. Arantzan adibidez, duela urte terdi herriko sarreran bi depositu haundi jarri zituen Repsolek, eta hortik gasa propanoa herrigune guzira banatzen ari dira geroztik. Momentuz 47 familiak bakarrik emana dute alta, izan ere garesti xamarra baita norberaren etxean instalazioa egitea. Arantzan bezala bertze tokietan ere, gasa propanoaren hodiak sartu eta behar den lekurat lotzea 20.000 durotik goiti gostatzen da. Hori bai, gero erosotasun handia sumatuko dute etxeok, baina bertze aldetik begiratuta, bistan da 100.000 pezetarekin butano botila aunitz erosten ahal dela.

Iparaldean garestiago

Iparaldean, berriz, tikiagoak eta garestiagoak dira butano botilak. Banaketa ere ez da hegoaldean bezala kamioiez egiten. Normalki gasolindegitan edo dendetan erosten dira botilak, baina berriki sarrarrek Donibaneko enpresa baten eskaintza jaso dute postaz: horren arabera, nahi izan ezker butanoa etxera ekartzen dizute enkarguz. Bertzalde, erran behar da Sara eta Senperereko etxeetan aski zabalduak daudela propano deposituak. Norberaren aukera da gasarena ere. ■

GAS MOTA DESBERDINAK ESKUALDEAN

Gas horniduraren inguruko datuak

- 1 Gaur egunean **12,5** kiloko BUTANO botil batek **1.003 pezeta (40 l.)** balio ditu hegoaldean. BUTANO kiloa **80,2** pezetatan (4 l.) dago, PROPANO kiloa bezal-bezalaxe. Iparaldean, berriz, **13** kiloko BUTANO botil batek **80** libera balio du, hegoaldekoaren bikoitza. Kiloa **6,1 liberatan (152 pta)** dago, beraz.
- 2 Herri guziarendako PROPANO depositua jarri duten herrien artean **Leitzan** egin dira instalazio gehien, denetara **380** etxetan jarri baitute. **Arantzan**, berriz, **47** familiek eskatu dute, baina denborarekin **115** familietara ailegatzea espero dute. **Elgorriagan 30** bat etxeetara sartzen da gas PROPANO.
- 3 GAS NATURALA etxe barnean instalatzea **24.000 Pta** gostatzen da (gas tuberiak sukalde eta berogailura lotzea, etab.), eta gasa hartzen hastea, berriz, 12.644 pezeta. Instalazioaren mantenimenduak urtean **3.400 pezeta** inguru balio du.

Lesakan ikusmin handia sortu du gas naturalak

Gas Navarrak bilkura egin zuen joan den hilabetean Lesakako Herriko Etxean, eta aretoa leporaino bete zen. Guttienez 185 familiarentzat egingen omen da instalazioa, eta izenemateak kopuru horretara ailegatu bezain laster hasiko dira tuberiak sartzeko obrak. Momentuz irudian ageri den bulego hori ideki dute herritarrei informazioa emateko. Herri guziarendako depositua futbol zelai ondoan ezarriko omen dute.

Beran, berriz, karrikak moldatzeko obrekin batera gas naturalaren tuberiak sartu di-

tuzte jadanik, guzira 1.500 metro hodi. Maiatzean egingen da gas naturalaren aurkezpen ekitaldia. Gas Navarrako arduradun batek erran digunez, ekaina hondarrerako gasa etxeetan hartzeko moduan izanen omen dira beratarak.

Bertzalde, Leitzan ere proiektua lantzen ari dira, eta behar bada 2001. urterako sartuko da gas naturala herrian.



Itxarone ZINKUNEGI Elgorriagarra

«Propanoa ez da butanoa baino garestiago, eta erosotasun ikaragarria ematen du»



Elgorriagan herri guziarendako gas propano depositu bakarra duzue, ezta?

Bai, orain dela urte erdi jarri zuten, iazko udazkenean. Guri sukalderraino ekarri ziguten tuberia, eta gero etxe bakoitzak barreneko instalazioa egingen zuen edo ez. Guk kalentadorea eta sukalderrako jarri genuen. Kalefakzioa jartzea ez du merezi, etxe zaharra delako.

Zenbat gusta zitzaizuen etxe

barneko instalazioa egitea?

Garesti xamar atera zitzaizgun, 150.000 pezeta inguru. Baina hala ere merezi duela usate dut.

Ze diferentzia somatu duzue butano botilaren aldean?

Prezioz berdintsu ateratzen da eta erosotasun ikaragarria ematen du. Honat butanoaren kamioia astean behin etortzen zen eta bozina jotzen zuen. Orduan zuk korrika joan behar ze-

nuen herriko bertze puntaraino eta aditzen ez bazenuen botilarik gabe gelditzen zinen... arras gaizki. Guk gainera butanoa kanpoan genuen eta euria egingen zuenean aldatzeko gaizki moldatzen ginen. Guretzat bederen abantaila handia da.

Prezioari begiratu zenioten aldaketa egiterakoan?

Bai. Guk hasiera batean kalkulua egin genuen goiti beheiti, eta nik uste guk gatatzen genuen butanoarekin gastu berdintsua dugula orain. Butano gutti gatatzen baduzu igual ez dizu merezi gasa jartzea, 2 hilabeteko kuota tiki batzuk pagatu behar direlako, baina guri bai. Portzietan, kuota hoiere erreziboak erdara hutsez daudela salatu nahi dut. Repsolen ez ote dago inor euskaraz dakienik?

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>**e-mail:**

ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.**Presidente:** Pello Apezetxea.**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.**Zuzendaria:** Aitor Arozena.**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.**Administrazioa:** Amaia Goia.**Erredakzioa:** Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak:

Joseba Azpiroz, Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fernandez,

Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor, Margari Etxenike,

Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe, Frederick Berruet,

Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea, Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunarte, Belarra...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde****Laguntzaileak:** Bera, Leitzu, Goizueta,

Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortziritako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria . . . 2.000 Pta.

Ipar Euskal Herria . . . 140 Libera

Europa . . . 3.500 Pta.

Amerika . . . 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNNEKO GAIA**Anorexia: eritasun gaztea, gazteen eritasuna****Eurek ez dira konturatzen duten arazoaz, eta hor lan haundia du familiak**

Jabier ETXEBERRIA
Goizuetako medikua

Arazo hau nahiko berria da, azken 15 urteotan asko haunditu da. Urte-

ro 101 kasu berri omen daude Nafarroan. Gazteen artean 100etik 4k omen du problema larri hau. Anorexia eta bulimia gaitz sikologikoak dira berez, eta gaur egungo gizartearen egoera erakusten dute nolabait. Anorexiko eta bulimiko gehienak pertsona bakartiak izaten dira, batzutan familian ere arazoak dituztenak.

Jakina da emakumeak direla gehienetan afektatuak. Zergatik? Gaur egun emakumei xarmentak izatea eskatzen zaie, oso ederrak, ongi jantziak... horren emaitza da gaitz hori. Normalean 12tik 21 urte bitarteko adin hortan hasten dira esanez: "lodi xamar nago, entsalada jan behar dut, edo arraina plantzan...". Gero afaria kentzen dute, eta gosaria, eta muturreko kasuetan fruta bat bakarrik jaten dute egun osoan, eta gainera urrikitzen dira jan dutelako. Anorexikoak beti lodi ikusten du bere burua, errealdadearen erreferentzia galtzen du. Bulimikoak, aldiz, izugarriko gorabeherak izaten dituzte pisuan. Kontrolrik gabe jaten dute eta gero botagarriak edo libragarriak erabiltzen dituzte.

Pertsona hauek ez dira konturatzen duten arazoaz, eta hor lan haundia du familiak.

Hemen 14-15 urteko nesketan gero eta kasu gehiago ikusten ari gara

Blanca BURUSKO
Erizaina

Gaur egun arazo hori duten hemengo bi nesken segimendua egiten ari

gara. Normalean amarekin etortzen dira, bakarrik inoiz ere ez. Nire kontsultara ailegatzen direlarikan gauza askotaz hitzegiten dugu. Jateko ohiturak, zenbat kirol egiten duten, etab. Gero dieta bat ematen diegu duten pisuaren araberak, eta baita kirola egiteko taula batzuk ere.

Hori fisiko aldetik, baina, bertalde, jakin behar dugu arazoa noiztik eta zergatik datorren: bere gorputza nola ikusten duen, inguruan zer laguntza duen... noizbait gertatu zaigu lagun talde bateko lau neska arazo berdinarekin egotea.

Azkenean, autoestima gutti dutela izaten da arazoa, eta gauza askotarako oso exigenteak direla beren buruarekin.

Nik uste orain arte hirietan herriano baino gehiago nabaritzen zela anorexia eta bulimiaren arazoa, baina orain zona honetan ere 14-15 urteko nesketan gero eta gehiago dagoela ikusten ari gara. Kantidade aldetik ez dago aunitz, baina duen jendearentzat arras arazo gogorra da. Guri ez zaigu gertatu, baina kasu estremoetan hiltzera ere ailegatzen ahal dira.

Arazo hau moldatzeko, behar bada eskoletan hezi beharko lukete elikadurari buruz.

Lehen pausua eritasuna duen pertsonak onartu eta ulertzea da


Mari Jose INDABURU
Etxalarko erizaina

Anorexia duen pertsona bat sendatzen laguntzeko lehen pausua eta garrantzitsuena, gaitza duenak onartu eta ulertzea da.

Anorexia duen pertsona batek ez du onartzen, ez eta sentitzen ere gaixo dagoenik, horregatik ez du deus egiten hori sendatzeko.

Horregatik, anorexikoak bere gaitxotasuna onartzen badu ia-ia bidearen erdia egina dago. Hortik aitzinera, guraso, lagun eta medikuen artean egin beharreko elkarlana falta da. Denbora aunitzeko tratamenduak segitu behar dira, lehenik sikologikoki tratatu behar da, eta ondoren desoreka zein ondorio fisikoak moldatu behar dira.

Hala ere, eritasun honen inguruan historia gutti dira, ikerketak gaitz murrizak dira, ez baitira gaitzaren nondik norakoak zehatz-mehatz ezagutzen. EEUUtan aunitz lantzen ari da eritasuna hau baina han egiten dituzten estudioek ez dute hementxe aunitz balio, bertako eta hemengo bizimoduak arront ezberdinak baitira. Edozein modutan, berriz azpimarratu nahi dut nutriologo, sikologo, familiar eta lagunen arteko elkarlanaren bitartez emaitza gaitz onak lortu daitezkeela eta anorexikoa pixkan-pixkan bizitza normala egitera ailegatu daitezkeela.



ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

**ARTEKARI
TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Astelehenerdik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratatutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitorpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☞ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Kritika bat:

Arrazismoak eta elkar ezin ikusiak nere ustez badute zerrikusia, munduan zehar gaur egun IHESA baino zabalduagoa. Elkar ezin ikusia berriz, Fernando Amezketarraren bi asto itsuen antzera. Guk elkar ikusten dugu baina nahiago ikusiko ezpagendu. Bertze herrialdeetik etorritakoekin kopiratasun izugarriak eta bertakoekin nahiago egin astoarena. Zientifiko jakintsuek ezpadute antidotarik aurkitzen eritasun hoiendako elkar ezin ikusia zabalduz joanen da gehiago.

Enbidia ere badago minbizia baino gehiago barrena janez dijuakio anai-arrebari kalte egin arren jende mota honek inperuari beldurrik ezti.

Elizara doaz mingaina luza luza eginda jaungoikoari mingainarentzat osasuna eskatzera handik atera bezin laxter deabruari algarra eskatuz barridekoren bateraman dezala.

MIKEL ETA ANA
BEINTZA-LABAIEN

**Obretako zergei intsumiso:**

Gure herrian bertan eta kanpoan bizi direnek ere, gure zergak edo kontribuzioa delakoa zuzen aski ordaindu behar izaten dugu, ondoren diru horiek bertako infrastruktura, bai kaleak, pistak, bideak, eta abar luze bat moldatu edo konpontzeko, baita izan litezkeen zorrak ordaintzeko ere. Honek zera esan nahi du, denak gustokoa nahiz eta ez izan, ordaindu behar ditugula.

Goizuetako Eliza Batzordeak azkeneko txostenean, oso txukun eta garbi kaleratu digu bertako eliza konpontzeko erabili diren materialen kosteak, gastatu diren diruak, herritarrek, Udalak, Gotzaitegiak, etabarrek... emandako diruak, ordaintzeko falta diren kopuruak eta ahaztu zaizkidan beste hainbeste kontu. Baina ez dut ikusten obrak egiteko Udalarik ordaintzen diogun kopuruak. Denok dakigu, edozein motatako obra egiterakoan Udalarik portzentai bat kobratzen duela. Ez dakit batzordeari ahaztu egin zaion edo Udalarik kobratu ez duen. Dena dela, kopuru ederra izan behar zuen,

OHARRA:

*Ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.*

53 milioiko obra bat egin eta gero (dohainik egindako lana gehituta, 57 milioi).

Hau aztertu ondoren galdera batzuk etorri zaizkit burura: Zenbat metro edo kilometro pista moldatu zitezkeen portzentai horrekin? Edo tei-latu, frontoi, zentro, lokal...? Zergatik ez du Udalak diru hori kobratu? Zergatik ez du diru hori Batzordeak txostenean azaldu?

Garbi ikusten dut honen ondoren, «obretako zergei intsumiso» deklaratu beharko

dudala.

OBRETAKO ZERGEI INTSUMISO BAT
GOIZUETA

**Jaun-andere agurgarriak:**

Eskutitz honen bidez jakinarazi nahi dizuegu uda honetan Leitzaldeko eskualdera Saharai ume talde bat, 31 eta bi monitore hain uxen, etorriko direla zenbait familiek hartuta.

Egitasmo honen helburua bikoitza da:

- Haur sahararrek beraien herrian jaso ezin ditzaketen zerbitzu ezberdinak (osasuna, elikadura ona, etab.) jasotzea.

- Saharar herriaren egoera zein den ezagutaraztea eta elkartasuna adieraztea.

Talde honen joan-etorria eta bertan eginen duten egonaldia, herritar, udaletxe, banaketxe etabarren laguntzari esker aurrera ateraztea espero dugu.

Bidaia eta asegurantzak kurbritzeko bakarrik, 3 milioiko aurrekontua dugu.

Guzti hau dela eta, zuengana zuzentzen gara ahal du-

zuen dirulaguntza Leitzako edozein banketxetan "saharar herriarekin elkartasuna" rako ireki diren kontuetan sar dezazuen.

Jasoko den laguntza aldeaz aurretik eskertuz, agur bero bat.

SAHARAKO HERRIAREKIN
ELKARTASUNA

**CAN-en iragarkia erdaraz**

Ttipi-ttapa azken alea hartu dugunean harrituak gelditu gara. Izan ere, kontrazaleko iragarkia erdaraz huts bez baitago. Iragarkia Caja de Ahorros de Navarra entitateak egina da.

Kutxak eta bertzelako entitate eta enpresek nahi adina komunikabide badituzte erdaraz publikitateak egiteko eta beraz, Ttipi-ttapa bezalako euskarazko komunikabideen ohiko hizkuntza, euskara, errespetatzea eskatu nahi diegu entitate horretako arduradunei.

ARANTZAKO EUSKARA BATZORDEA

**KULTURKARI****Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

ZURE EZKONTZ-ERREPORTAIAN AUKERA BEREZIA

- Ordubete eta laurdeneko zinta originala
- 2 kopia oparizat + PREVIA
- Muestra konpromezurik gabe

Tel.: 943 61 83 14 • Hondarribia karrika z/g • IRUN

**EGUZKI
OSTATUA**

Era guzietako bokatak, hotzak eta beroak

Kaxulak

Bazkari eta afariak enkarguz

Erretegia

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo zarbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. **Termita eta Polillen kontrako tratamendua**



☎ 948630155
BERA

**SAROB
okindegia**

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

DESKONTUAK

ARROPAK

MARELI
Jantzidenda

Sasoiko jauntziak
Neurri haundikoak
Loreak Mendian

Jaime Urrutia, 27 •
ELIZONDO

▶ % 5 merkeago
Arropa guzietan

OPARIAK



Elbarren, 15 • LEITZA
Tfnoa.: 948 51 01 46

▶ %10 merkeago opari
artikuluetan

OPTIKAK



Bidasoa, 8 • BERA
Tfnoa.: 948 63 07 53

▶ %10 merkeago

AUTO ESKOLAK



SEMPER
AUTOESKOLA

Ezegara Pasealekua, 18
BERA
Tfnoa.: 948 63 02 98

▶ %10 merkeago
matrikulan

55 ZERBITZU ETA SALTOKIETAN



TTIPI TXARTELArekin
irabazten ateriko zara

TTIPI TXARTELA baldin baduzu, ez zara galtzen
ateriko. Ateri kontuak. Zenbat eta gehiago erabili,
orduak eta gehiago irabaziko duzu.
Deskontuak, zozketak, opariak...

ESKATU ZUREA

☎ **948 63 11 88**

TTIPI TXARTELA dutenen artean
ARGIA astekariaren
6 hilabeteko harpidetza baten
zozketa




Sariaren irabazleak
6 hilabetez hartuko du
etxean **ARGIA** aldizkaria
dohainik. Aprobetxatu
aukera. Jaso ezazu
astero etxean ARGIA
BIZIAGOA.

6 hilabeteko harpidetza baten zozketa egingen da
TTIPI TXARTELA dutenen artean. Zuk astero etxean hartu nahi
baldin baduzu ARGIA ASTEKARIA, deitu 948 63 11 88ra.

DESKONTUAK

ZAPATAK



ZAPATAK
OSAGARRIAK
KONPONKETA

Kanttonberri, 6 • BERA
Tfnoa.: 948 63 15 16

▶ %10 merkeago



OINETAKOEN MODA

San Miguel, 2
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 03 82

▶ %10 merkeago

OPARIAK



Elizagibela, 4 •
DONEZTEBE
Tfnoa.: 948 45 19 32

▶ %10 merkeago
2.000 Pta.tik goiti
erosketetan

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Diario de Noticias 99ko apirilaren 29a

«Garraioan ez da belaunaldi berriaren erreleborik, hori da momentuan dugun arazorik haundiena».

Rafael IRIGOIEN
Nafarroako Garraiolar
Enpresarien Elkarteko (ANET)
lehendakaria
LESAKA
Diario De Noticias 99-04-29

«327ko harriak, neguan egineiko prestaketa gogorak onak izan zirena erakutsi dit».

Miel SARALEGI
Harrijasotzailea.
Egunkaria 99-04-30

«Sakea hobetu behar dut».

Asier OLAIZOLA
Pilotaria.
Egunkaria 99-04-30

- ◆ **12 ordu eskuaraz...**
- ◆ Egunak ordu gehiago ditu.
- ◆ **300 andre dantzan aritu ziren...**
- ◆ Mutil-dantzen herrian.
- ◆ **Antzerkian, zer paper zenuen?**
- ◆ Margareth nintzen, erromes ingeles bat.
- ◆ **Nora joanen zinateke erromerian?**
- ◆ Urkiolara, San Antonio bisitatzera.
- ◆ **Zein pelikuletan parte hartuko zenuke?**
- ◆ Bi ronbodun horietako batean.
- ◆ **Lehengo aldian eliza bazterrean ikusi natzun...**
- ◆ Ta ez preziski errezatzen.
- ◆ **Mutil bat?**
- ◆ Felix...
- ◆ **Baztandar bat?**
- ◆ Mariano Izetaren "fans" bat naiz.
- ◆ **Mendi bat?**
- ◆ Kanchenjunga.
- ◆ **Menu bat?**
- ◆ Piperrada, tortille eta oilaskoa.
- ◆ **Kinto besta, Baztandarren, Iñauteak, bestak, Nafarroaren Eguna...**
- ◆ Baztandarren Biltzarra eta gero gainerakoak.



Maxux GOÑI
ELIZONDO
"12 ORDU ESKUARAZ"eko erromesa

ttipi-ttapa telebistaren programazioa

ASTELEHENA, 10
13:00 **Herriz Herri:** Errep.
21:00 **Berriak**
21:30 **Jokoa Solas:** Kirol emaitzak eta berriak.



ASTELEHENA, 17
13:00 **Herriz Herri:**
21:00 **Berriak**
21:30 **Jokoa Solas**

ASTEARTEA, 11
13:00 **Berriak** (err.)
13:30 **Jokoa Solas** (errepika)
21:00 **Berriak**



ASTEARTEA, 18
13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Jokoa Solas** (errepika)
21:00 **Berriak**

ASTEAZKENA, 12
13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzean**



ASTEAZKENA, 19
13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzean**

ORTZEGUNA, 13
13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Bidegurutzean** (errepika)
21:00 **Berriak**



ORTZEGUNA, 20
13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Bidegurutzean** (errepika)
21:00 **Berriak**

ORTZIRALA, 14
13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Herriz Herri** Bortziriak eta Male-rrekako berririkak, herrietako berrie-maileen eskutik.

ORTZIRALA, 21
13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Herriz Herri**



Euskararen galera gelditu da Nafarroan inkesta soziolinguistiko baten arabera

Eremu euskaldunean, jendearen erdia baino gehiagok badaki euskaraz

TTIPI-TTAPA

Nafarroan historikoki euskarak izan duen galera gelditu egin da eta pixkan-pixkan berreskuratzen ari da, batez ere gazteen artean. Horixe da «Euskal Herriko II. Inkesta Soziolinguistikoa»k emandako ondorio nagusietako bat. Inkesta 1996. urtean egin zen 1.464 nafarren artean (800 euskaldunak eta 664 ez euskaldunak), beraz, 1991koa baino zabalagoa izan zen.

Inkestak azaldutakoaren arabera, euskararekin dagoen jarrera aldatu da gehien bat. Erabilera haunditu ez bada ere, euskara bultzatzearen alde agertzen diren nafarrak, gero eta gehiago dira. Euskararen aldeko jarrerak %22tik %38ra pasatu da eta kontrako jarrerak, aldiz, %54tik %32ra.

Eremu euskaldunean, populazioaren erdia baino gehiago (%57'6) elebiduna da eta guttiengo bat (%2'3) euskaldun elebakarra. Elebidun pasiboak (eus-



Osasun zerbitzuetara joaterakoan gaztelera gehiago erabiltzen da euskara baino.

kara jakin arren, erabiltzen ez duena) %7'4ra ailegatzen dira. Hiru bizilagunetik bat (%32'7) erdaldun elebakarra da.

Euskararen transmisioari dagokionez, eremu euskaldunean euskara izan da %55,4aren ama hizkuntza. Gaztelera berriz, %40aren ama hizkuntza izan da eta gainerakoek bi hizkuntzak jaso dituzte seas-

kan. Adinari dagokionez, Nafarroan 64 urteko goitiko %11ren lehendabiziko hizkuntza euskara izan zen, baina 16 eta 31 urte artekoen %6arena bertzerik ez.

Gurasotik seme-alabenganako transmisioan galera haundia izan du euskarak, batez ere gurasoetako batek euskara ez dakienean. Halere, 80 eta 90. ha-

markadetan galera hau gelditu egin da.

EUSKARA EZ DA BERDIN ERABILTZEN ETXEAN ETA ETXETIK KANPO

Euskaldunek familia eta inguru hurbilean euskara gehiago erabiltzen dute gaztelera baino. Eremu euskaldunean, ordea, adinaz goiti egiten den neurrian, euskara gutiago

erabiltzen da lagunartean.

Familian, euskaldunen %65ak seme-alabekin euskaraz egiten du; %52ak amarekin, %47ak aitarekin; eta %47ak emazte edo senarrarekin. Inkesta erantzun duten euskaldunen etxean ia erdian (%46) egunero euskaraz egiten da, %16an bi hizkuntzak erabiltzen dira eta %38an gaztelera batez ere.

Euskaldunek, etxetik kanpo ateratzerakoan, euskaraz egiten dute dendetan (%68) edo apetzarekin solasterakoan (%67). Lagunekin eta lankideekin solasterakoan %51k euskara erabiltzen du. Seme-alaben irakasleekin gurasoen %76ak euskara erabiltzen du. Udal langileekin solasterakoan euskara (%49) gehiago erabiltzen da gaztelera (%43) baino. Gaztelera, ordea, gehiago erabiltzen da banku eta aurrezki kutxetako langileekin solasterakoan eta, batez ere, Osasun zerbitzuetara joaterakoan (%56 gaztelerez).

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735



PIKABEA

Molinero drogerian galdetu

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • © 948 630240 - 948 631495 • BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 • © 948630083 BERA

ROMANO PINTURAK

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxoa eta sintasola.

© 948630941 • 948631137 • BERA

Heldu den asteburuan eginen dira Herri Lasterketa eta Mendi Itzulia

Kaxerna Aisialdi Taldeak Ludoteka eta Gazte Txokoa idekiko ditu

ASIER GOGORTZA

Hurrengo asteburu-ko agendan kirola da jaun ta jabe. Larunbata arratsaldean, hilak 15, Gure Txokoak II. Herri Lasterketa eginen du. Irteera Toki Ona kiroldegian jarri dute, 17:00-ak aldera haurrak eta 18:30etan, berriz, gainerako kategorietako korrikalariak. Informazio gehiago 948 630918 telefonoan (Patxi).

Biharamonean, bertalde, Agerra Mendi Taldearen Mendi Itzulia eginen da Berako mendietan barna. Izenematea: goizeko 7etatik 8etara Agerran.

Ludoteka eta Gazte Txokoa

Maiatzaren 15ean inauguratuko da Kaxerna Aisialdi Taldeak Iamotenea Elkartean egin duen Ludoteka. 3tik 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat egokitu dute lokal hau, denbora librean euren gustoko josteta eta denborapasa egin ahal izateko.

Zabaltze ekitaldia auzoetatik abiatuko den kalejira batekin hasiko da. Gero Iamotenean elkartuko dira lokalak ikusteko, eta hameketako ttiki bat ere egonen dela abisatu digute Kaxernakoek. Ludoteka



Asier

eta Gazte Txokoa ezagutu nahi duten haur, guraso eta herritar guziazak gonbidatuak daude.

Hauteskundeak

Ekainaren 13ko udal hauteskundeetan 3.000 beratarrek izanen dute boto eskubidea. Beti bezala, bitan bereiziko dira boto-emaileak. Bate-tik, herri barnean bizi direnek Rikardo Baroja eskolako 4 mahaietan bozkatu beharko dute, eta herri kanpokoek, berriz, Kultur Etxean.

Artis Mundi erakusketan jende aunitz ibili da orain arte

Maiatzaren 7a arte, hau da, ortzirala arte duzu aukera artista gazteen erakusketara bixi hau bisitatzeko. Ortziralean bertan Maximiliano Tonellik solasaldia emanen du "El sentido de la vista" erakusketako gai nagusiari buruz, eta gero bisitaldi gidatua eginen da erakusketatik. Arte erakusketetik sartu zaren bezal-bezalaxe ateratzen zaren hoietakoa bazara, beharbada gustora adituko dituzu artistaren esplikazioak.

1,2 kiloko amurraina arrantzatu du gazte honek

Sergio Fernandez gazte beratarrek ale eder hau ateri zuen joan den martxoan Arantzako errekan. Kutxarilla erabiliz arrantzatu zuen amurraina. Zorionak!



Argazkia: Goiko

flash

Kultur Errota

Ortziral honetan, Erausian euskara taldearen eskutik, Caroline Philips eta Michel Ducau abeslarien kontzertua izanen da Pui ostatuan. Gainera, Ander Lipus antzerkilariaren bakarlana bat ikusten ahaliko dugu: "ardo". Lan honetan ardoaren apologia egiten du Lipusek. Arratsko 10etatik aitzine-za izanen da.

Incansables

txaranga famatuko musikariak izen bereko Banda sortu dute, eta hil honen 14an Berako Kultur Etxean eta Altzate karrikan joko dute. Berako musika eskolak antolatuta du ekitaldia.

Turismoa

Turismo bulegoan Etxalarko neska bat ari da lanean maiatzaren 1az gozotik. Udazkena bitarte egonen da han.

Zuzendaritza berria

Joan den apirilaren 16an aurkeztu zen Gure Txokoa Elkartean zuzendaritza berria. Erabaki zutenaren arabera, Jabier Pacheco izanen da lehendakaria datozen bi urtetan. Gainerakoan, aldaketa haundirik ez dagoela erran behar da, orain arteko jende berdintsuak izanen baitu Elkartean ardura.

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak

E E K L E
st tu

Tfnoa: 948630259 - BERA

OKANE

HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

© 948 631462
Altzate I • BERA

Xirgil
Altzate I • BERA

LESKA



VII. Euskal Jaia arrakastatsua

Tantirumairu ikastolak zazpigarren urtez antolatutako Euskal Jaia arrakastatsua suertatu zen apirilaren 25ean. Herriko bi dantza taldeekin batera, Faltzes, Lasarte, Gorliz, Orio eta Altsasuko dantzari gaztetxoek goizean karriz karriz eta eguerdian plazan, eskaini zituzten beraien dantzaldiak. Herriko jendeak ederki goxatu zuen, baina kanpotik etorritakoek ere ahozabalik gelditu ziren Tantirumairu taldeko ttikiek *Zubigainekoa* dantzatu zutenean. Antolatzailak gustora gelditu dira egun honek izandako arrakastarekin eta heldu den urtean, zortzigarren Euskal Jaia izanen dela segurtatu dute.

TTIPI-TTAPA TB

flash

- ❖ **Jone Fagoaga** ehiztari gazteak Espainiako plater tiraketa txapelketan parte hartu du, *Compack sporting* izeneko modalidadean, Soriako Castillejo de Robledo herrian. Fagoaga hirugarrena izan zen eta postu honek, nazioarteko probak jokatzeo aukera emanen dio, seguraski.
- ❖ **Aihelene Urriza** Nafarroako udal eta Kontzejuen Federazioak hirugarren urtez antolatutako marrazki eta idazlan lehiaketan saritua izan da Irain eskolako Aihelene Urriza Otxoteko. Marrazki lehiaketan bigarren izan zen Aihelene. Nafarroako ikasleei beraien Herriko Etxeaz duten ikuspegia azaltzea eskatzen zaie lehiaketa honetan.

Urrezko Adina elkarteko bazkideen besta maiatzaren 11n egingen da

50 urte esposatuta bete dutenei omenaldia eskainiko zaie

AITOR AROZENA

Heldu den asteartean, maiatzaren 11n, urteroko Anaitasun Besta egingen dute Nafarroako Aurrezki Kutxako Urrezko Adina elkarteko bazkideek. Eguerdiko 12etan txistulariak aterako dira, Santiago Irigoien buru dutela. Agintari eta gonbidatuei erretiratuen elkartean ongi etorria eskaini ondotik, elizara abiatuko dira, Meza Nagusia aditzera. Meza girotzeko, Gillermo eta Larrane kantuan, Txoperena organoan eta Santiago eta Rekondo txistua jotzen ariko dira. Hauekin ba-

tera, Makukobordako Luis Olaetxea bertsolariak ere parte hartuko du. Elizatik pilotalekura joanen dira gero, anaitasun bazkaria izanen baita bertan. Bazkalondotik, aurtan Urrezko Ezteiak ospatzen dituztenak omenduko dituzte: Agustin Etxabide eta Francisca Aierza; eta Jose Javier Sesma eta Maite Ortega dira 50 urte esposatuta betetzen dutenak. Besta akabatuzeko, 'Europa' taldearekin dantzaldia izanen da eta bi TB zozketatuko dira azaldutakoen artean. Bazkariaren prezioa 1.750 pezetakoa da bazkideentzat.

Eskulan erakusketa igande honetan jubilatuoen eskutik

Igande honetan, goizeko 10etatik aitzinera, artisautza eta eskulan lanak, bertako produktuek eta garai bateko tresnak ikusteko aukera izanen da San Fermin elkartearen egoitzaren atarian, Alondigako arkupetan. Erretiratuen elkarteak berak antolatu du ekitaldi hau eta nahi duen guzira erakusketara agertzeko deia luzatu dute. Ez da erretiratuen ekitaldi bakarra, gainera. Asteburu honetan, araututako ibilaldia izan zuten larun-

batean eta ama eta amaxiei eskainitako afaria igandean.

Tantirumairu Ikastolaren 25. urtemuga ospatzeko lan-taldea osatu da

Heldu den ikasturtean, hau da 1999-2000.ekoan, Tantirumairu Ikastolaren 25. urtemuga beteko da eta hori ospatzeko, ikasturtean ekitaldi ezberdinak antolatu nahi dituzte. Horretarako lan-talde bat osatu da, egitarau zabal bat gauzatzeko asmoz. Komisioa hau ez dago itxia, nahi duen guziari irekia baizik. Horregatik, gura-

so, ikasle ohi eta laguntzaile guztiei jakinarazten zaie lan-taldearen hurrengo bilerara heldu den asteazkenean, maiatzak 12, arratsaldeko 8etan izanen dela, arratseko 8etan. Bertzalde, Herri Urratsera joateko autobusa antolatu du ikastolak. Maiatzaren 6a izanen da Izarra okindegian izena emateko azken eguna.

BITTIRIA HARATEGIA
 ☎ 948 627555
 Bittiria, 43 • LESKA

KATTU
 ostatu - jatetxea
 Plater konbinatuak eta menuak
 ☎ 948627573 • LESKA

Mannel Zamorano
 Bernizadurak
 Pintura
 orohar
 ☎ 689 042 671 • 948 637556
 Bittiria, 37 • LESKA

ANA janaridenda
 Bittiria, 41 • ☎ 948637944
 LESKA

Lurrindenda
 Marian Mendiberrri
 Estetika
 Behoko Plaza 8 ☎ 948637791 • LESKA

ETXALAR

Udalaren aurtengo aitzinkontua 84 milioi pezetakoa izanen da

1998ko kontuek sei milioiko superabita utzi zuten

PELLO APEZETXEA

Udalak 84 milioiko gastua kalkulatu du 1999garren urte honetarako. Sarrerak eta gastuak berdintzeko, iazko 6 milioirekin kontatu ahal izan du; izan ere, 1998an sei milioi gelditu baitziren. Aurtun, betiko gastuez gain, honako hauek aipatzen ahal ditugu: Herrikoetxe zaharra Kultur Etxe bihurtzeko barrendik eginen diren lanak, 13 milioi; Baserritako bidetxeak moldatzea, 5 milioi. Gastu berezi hauek, Nafar Gobernuaren dirulaguntza espero du Udalak eta horren arabera eginen dira.

Nekazarietxako zerbitzurik ez Etxalarren

Udalak behin eta berriaz galdetu badu ere, Nafarroako Gobernuak



Arantza, Igantzi eta Etxalarko eskoletako haurren topaketa
 Apirilaren 28an, Arantza eta Igantziko eskoletako haurrak etorri ziren. Lehen ere etorriak izanagatik, herriko zenbait bazter hobeki ikusten eta ezagutzen eman zuten lehenbiziko ordua. Gero, hiru herrietakoak plazan bildu eta hainbat joku eta lan egin zuten, duela urte franko erabiltzen eta orain ezezagun diren jostailu eta lan tresnez baliatuz.

nekazarietxako plantatu duen zerbitzua ez da Etxalarren izanen. Udalak adierazitako argudioak –azienden kopurua– egokiak izana-

gatik, Gobernuak pentsatu bezala, Lesakan eta Beran soilik irekiko da bulegoa, astearte eta ortzegun goizetan. Gaur egun, ongizate eta bizi-

kalitateaz hainbertze soilas egiten denean, zenbait laguntza eta zerbitzuren murriztea ikusten ari gara. Etxalarkoek denbora eta diru gehia-

go gastatu beharko dute, aziendagatik nahiz eurengatik egin beharreko paperak egiteko.

igerilekuetarako langileak

Lehenengo deialdian inork ez zuen izenik eman Herriko Etxean, igerilekuetako lanaz jabetzeko. Egia erran, lan hori hartzeko prestakuntza berezia ere egitera behartzen dute, igerilekuetako arriskueta laguntzeko gai izan behar baitute langileek. Horrek zailtzen du lan eskeintza. Hala ere, bigarren deialdian agertu dira lana hartu nahi duten bi lesakar.

Presoen aldeko enkartelada

Maiatzaren 7an enkartelada eginen da plazan, «Euskal presoak Euskal Herrira» eskatzen duena.

XATURBETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 LESAKA

ZALAIN

 Zalain Auzoa
 ☎ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira

HERRIKO OSTATUA

Jatetxea
 ☎ 948635290 **ETXALAR**

«USOA»
 NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduarentzat
 pentsurik egokiena
 Tfnoa: 948635214
ETXALAR

KOXKILA OSTATUA

 Zarandia, 4 - LESAKA

LEGARRA
 Legarra, 9 • ☎ 948 637 030 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
 • Liburuak
 • Papertegia
 • Tabakoa
 • Plastikazioak egiten ditugu
 • FAX publikoa
 • Enkuadernatzeak
 • Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espirelean ere egiten dira

HARITZPE

 948635235
 948635038
GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK

 Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.

IGANTZI

Padenasak moldatuko du Sarrolako errepidea

Baserritako pistak moldatzeko Arkaitzak egin du eskaintza onena

OSKAR TXOPERENA


Eguraldiak pixka bat lagundu ezkerro, segiduan hasiko dira Padenasako langileak Sarrolako errepidea moldatzen. Bera izan zen eskaintza egin zuen enpresa bakarra, aurrekontua baino zerbait apalagoa gainera. Hasiak behar zuten hain hondatua dagoen zola moldatzen, baina, eguraldi txarra dela medio, pixka bat atzeratu zuten.

Baserritako pistak moldatzeko hiru eskaintzak, berriz, apirilaren 23an ireki ziren. Berako Arkaitzarena izan zen eskaitzarik hobena, aurrekontua

%10ean hobetzen zuen eta. Arkaitza izanena da, beraz, pistak moldatuko dituen enpresa.

Harrobiari buruz bilera

Zenbait alegazio eta sinadura bilketa zirela medio, apirilaren 23an izan zen harrobiak egin nahi dituen obrei buruz informatzeko bilera. Bertan izan ziren zenbait zinegotzi, harrobiako jabeak eta interesatuta zeuden zenbait lagun, harrobi inguruan terrenoak dituzten edo bide berria egiteko harrobiak behar dituen terrenoen jabeak gehien bat. Luze eztabaidatu ondotik, harrobikoek te-



Arbasoen sorterriaren bila, Argentinatik Igantzira

Aski gazterik eta garai latzetan, 1912an hain zuzen, joan ziren Argentinara Aniceto eta Pedro Telletxea igantziarrak, 14 eta 12 urterekin. Hasieran beren familiarekin harremanak izan bazituzten ere, laister galdu zituzten, eta orain dela gutti, 60 urte elkarren berririk izan gabe pasatu ondotik, seme-ek bilatu nahi izan dute Aniceto eta Pedron sorterri eta familia. Interneten bitartez lortu zuten informazioa eta harremanetan jarri ondotik hemen izan dugu aste pare bat pasatzen Hector Telletxea -argazkian ezkerrean- Blanca emaztearekin. Iribereko Aniceto Etxeberria lehengusuarekin ageri dira.

renoen jabeekin egoteko eta, arazo hori moldatuz gero bertze bilerara egiteko gelditu ziren, bide zaharraren gaia eztabaidatzeko.

Bataio eta komunioak

Garai honetan urtero egin ohi den bezala, joan den igandean izan

ziren udaberriko bataioak, hiru haurrenak hain zuzen ere. Komunioak, berriz, maiatzaren 29an izanen dira.

Hodeiertz abesbatza

Larunbat honetan ilunabarreko mezaren ondotik, izanen dugu Hodeiertz Abesbatza

tolosarra entzuteko aukera. Ahalegin handia egin behar izan du herriko abesbatzak Enrike Azurzaren gidaritzapean abesten duen taldea ekartzeko, Igantzin hagitx guttitan dastatzeko moduko musika egiten baitu. Ekitaldiak Udalararen 100.000 pezetako laguntza izan du.



Ostargi Optika

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Lentillak
- Ikusmen azterketa orokorrak
- Begietako tentsioaren kontrola
- Hurrei errebisioa egiten zaie

**Eta behar izanez gero...
ERA GUZTIETAKO
BETAURREKOAK
DITUGU ZURETZAT**

Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 63 07 53



BERRAZUN S.L.

Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezea
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziako Bentak • ☎ 948627572 • Faxes: 948637313



BERA

☎ 948631076 • BERA

ATM S.A.



AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantziako Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxes: 948 637 313



BERA

ARANTZA

Gazta egiteko ikastaroa antolatatu du EHNE sindikatuak

Bertzalde, Euskara Batzordea osatu da herrian

ELIXABET ETA GARBINE

EHNE nekazarien sindikatuak antolatuta eta herriko zenbait lagunena nahia segituz, maiatzaren lehendabiziko astean gazta egiteko ikastaroa burutu da herrian. Astebetez, Zahar-Txokon egon dira ikasten. Lehenengo egunetan teoria ikasten aritu baziren eta gero praktika pixko bat egiten dutela erran digute. Deialdia irekia zen eta edozein apuntatzen ahal zen ikastaro honetan. Ikastaroan ikasitakoari segituz egindako gaztak probatzeko esperoan gelditzen gara.

Bortzak Bat kooperatibaren batzarra

Urteko kontuak egin behar zirela eta, apirilaren 24an bildu ziren Bortzak Bat nekazal

Kooperatibako berrogeita hamar bat sozio. Kontuak egin eta guztiak konforme gelditu ondotik, aforriederrian omen zuten.

Euskara Batzordea osatu da herrian

Herrian sortu berri den Euskara Batzordeak euskararen aldeko edozein deialdiren antolaketan eta arazo bideratzean lan egiten du. Horrela, oraindik Herriko Etxera erdaraz idazten diren kartentzat euskaratze-ko ereduak emanen ditu. Euskararen aldeko edozein egunetara joateko deialdiak ere zabaldu eta antolatuko di-



tu. Herritar guzientzat irekia dagoen batzorde honetaz gehiago jakin nahi izanez gero, Udaletxean galdetzen ahal duzue informazioa.

UEMA Eguna joateko autobusa

Joan den urtean Arantzan egin zen bezala, aurtengoan Zeanurin plantatu dute UEMA Eguna, maiatzaren

16an. Sortu berria den Arantzako Euskara Batzordeak autobusa antolatu du eta goizeko 9etan abiatuko da plazatik. Izena maiatzaren 12a baino lehen eman behar da Herriko Etxean. Modu berean, Zeanuriko herri bazkari-ko txartelak ere Herriko Etxean erosi behar dira, hauek ere maiatzaren 12a baino lehen.

Portuonaria

Eskolarteko margo lehiaketan irabazle

Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak hirugarren urtez antolatu du marrazki eta idazlan lehiaketa. Lehiaketa honen bitartez, Nafarroako ikasleei beraien Herriko Etxeaz duten ikuspegia adieraztea eskatzen zaie. Margo lehiaketari zegokion lehendabiziko saria Arantzako Herri Eskolako Imanol Mitxelenak irabazi du, ondoan ageri den marrazki horri esker.



Imanol MITXELENA

IRU BIDE
ERRETEGINA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — © 948 630763

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hobereana
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 948637264

ERROTASAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
© 948 630 700 • Fax 948 631 213
Zalain Poligonoa, BERA

SUNBILLA

Jon Arretxe irundarrak irabazi du IV. Mendi Bizikleta ibilaldia

Berrogei bat txirrindulari atera ziren gazteek prestatutako proban

JAIONE ETA ALBA

Baziren bortz urte ez zela egiten eta aurten herriko gazteen esku egon da apirilaren 25ean burututako mendi bizikleta txapelketaren antolaketa.

Sunbillako mendietan barna 26 kilometro malda goiti eta beheiti egin behar izan zituzten laugarren ibilaldi honetan parte hartu zuten berrogei txirrindulariek. Eguraldia ezin hobea izan zuten.

Bi kategoria egin ziren: gaztixoena eta helduena.

Helduen mailan, Jon Arretxe irundarra izan zen irabazlea. Bere ondotik, Narbarteko Mitxel Aginaga eta Jose Mari Goia igantziarra sartu ziren. Gaztixo edo junior mailako proban, Gorka Zinkunegi oartzuarra izan zen az-



Jon Arretxe irundarrak aisa aski irabazi zuen mendi bizikleta proba. Kontuan hartu behar da, Euskadiko Opena eta gisako probetan aritzen dela eta Sunbillara entrenatzera etorri zela.

Argazkia: TTPI-TTAPA TB

karrena. Bere ondotik, Xabier Andueza eta Xabier Petirena sunbildarrak sartu ziren.

Proba arras abudo egin zuten, zirkuitoak horretarako aukera ematen baitzuen. Gehien bat,

asfaltatutako zatiak zitu. Bukaeran, parte hartzaileei gosaria eman zieten. Sariak eman ondoren, parte hartu zuten artean, mendi bizikletan ibiltzeko tresnak zozketatu ziren.

Igerilekua udan hartzeko bigarren deialdia

Uda honetan igerilekua hartzeko lehiaketan proposamenak aurkezteko epea luzatu egin da. Lehendabiziko lehiaketan inork ez du izenik eman eta horregatik epea maiztaren 15a arte luzatu da. Aitzineko aleetan aipatu bezala, igerilekuaren ardura hartu nahi duenak, baldintzak eta izenemateko inprimakiak Herriko Etxeko idazkaritzan aurkituko ditu.

Txurruptako alabaren bataioa

Apirilaren 25ean, Txurrupta baserriko alaba, Rebeka Lorea Iriarte bataiatu zuten herriko elizan. Azken bolaran geroz eta haur guttiago jaiotzen dira herrian eta bataioak ere gutti izaten dira.

Portonaria

Mendaurrera bi urtetan kasik hirurehun aldiz igo da

Ez da Himalayako tontor elurtuak zanpatzeagatik inoiz famatuko, baina Haritzeneako Pedro Indakotxeak Inurrategitarrek seguraski inoiz egiten ez duten marka egin du: bi urtetan kasik hirurehun aldiz igo da Mendaurrera. 1997an 136 aldiz egon zen kaxkoxan eta ia 147 aldiz. Berak dioen bezala, «*bidea aski ongi ikasia dut, gaez joateko ere*». Bertze mendietara joateko ohiturarik ez du, baina Mendaurreko maldan goiti gustora egiten du.



Pedro INDAKOTXEA

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

Ibarrala Martzuria
Hortzeko orrapa
0-14 urte
Prestaketa 6 - 100000
1111111111

XARMANTA arropa denda
40tik 54ra bitarteko tailak
Arropa gazte eta klasikoa
Ospakizun ezberdinetarako arropak
© 943 645613
San Pedro, 69 HONDARRIBIA


APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

ETXANDI TXOKO jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
☎ 948 450 491

DONEZTEBE

ITUREN

I. Mendi Bizikleta Irekia larunbat honetan

Larunbat honetan, maiatzak 8, arratsaldeko 5etatik aitzinera burutuko da Doneztebeko lehendabiziko mendibizikleta irekia. Proba Irrintzi Ostatuan hasiko da eta hortik Albistegi, Donamariako kanposantua, Bernardinon borda, Petiteako gatzainadia eta Sarrean barna igaroko da, berriz ere Irrintzin akitzeko. Bortz kilometro terdiko ibilbide honi hiru itzuli eman beharko zaizkio, hamasei kilometro terdi osatuz guzira. Izen-ematea Irrintzi ostatuan bertan (948 451826 telefonoa) egin behar da, 1.000 pezeta utziz. Irabazleak 15.000 pezeta eta saria eramanen du, bigarrenak mila duro eta saria eta hirugarrenetik hamargarren postura saria izanen da. Parthartzaila guziei kamiseta emanen zaie eta berendua izanen da gero.

Janari manipulatzaila karneta

Janari-manipulatzaila karneta ateratzeko edo berritzeko aukera maiatzaren 28an, goizeko 9etatik aitzinera izanen da Doneztebeko Juansean.



Karriz karrika ibili ziren agintariak, lanen ondorioa ikusteko. Asier

Karriken inaugurazioa egin zen apirilaren 22an

Migel Sanz lehendakaria izan zen ekitaldian

PATXI IRIARTE

Zenbait hilabetez urhornidura, saneamendu, argi eta zola berri-tze lanak egiteko hantzez goiti egon ondotik, apirilaren 22an zabaldu zituzten ofizialki herriko karrizak. Ekitaldian, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako lehendakaria, Rafael Gurra lehendakariordea eta zenbait kontseilari izan ziren, Migel San Migel herriko alkatea eta zenbait zinegotzirekin batera. Malerrekako ber-

tze zenbait udal agintari eta Mariezkurrena erai-kuntza enpresako ordezkariak ere bertaratu ziren. Plazoletan be-deinkapena eman zuen apezak eta aureskua dantzatu zen. Gero, karriz karrika ibili ziren, lanen ondorioak ikusteko eta bazkaltzera joan ziren.

Migel San Migelek egindako solasaldian, azken urteetan lortuta-



Aureskua dantzatu zen.

ko azpiegiturak gogoratzeaz gain, polikiroldegiaren beharra azpimarkatu zuen.

Herriko Ostata hartzeko epe berria ireki da

Apirilaren 18an Iturengo Herriko Etxean itxi zen Herriko Ostata hartzeko eskaintzak aurkezteko epea. Dena den, inork ez du soberik bota enkante honetarako. Prozesuaren arabera, hurrengo pausua kanon finkoa eta alokairua %10 jaustea da. Beraz, kanon finkoa 2.250.000 pezeta izanen da eta guttieneko alokairua, 63.000 pezeta. Bi kopuru hauei, BEZ zerga gehitu behar zaie. Beraz, norbait interesatua badago, Iturengo Herriko Etxera jo beharko du lehenbailehen.

Armaurri inguruko harrobian lan egiteko baimena eman du Gobernuak

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamenduak Armaurri inguruko herri lurretan dagoen harrobian harlauza ateratzeko baimena eman dio Iturengo Udalarari, Foru Agindu baten bidez. Harrobiak 20.000 metro kuadro hartzen ditu eta Losas Mendaur, S.L. enpresa izanen da harlauza aterako duena.

FUNERARIA ZERBITZUAK Lesaka-Donztebe



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak Tfnoa: 948637404 • LESAKA Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Udarako Bainujantzi eta osagarriak prest dituzu



Parrokia 11 • Tfnoa: 948 45 01 12 • DONEZTEBE

MALERREKA

TTIPI-TTAPA TELEBISTA ikusten ahal da dagoeneko Malerrekan, 62. kanalean

Askin mendiko antenan Doneztebeko Udalak utzitako instalazioari esker

TTIPI-TTAPA

Narbarte, Legasa, Oieregi, Sunbilla, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Urrotz, Oitz, Gaztelu, Donamaria eta Sunbillako bizilagunek TTIPI-TTAPA TELEBISTA ikusteko aukera dute dagoeneko. Doneztebeko Udalak Askin mendian duen antenan errepetidorea jartzeko baimena eman dio TTIPI-TTAPA TELEBISTARI. Instalazioa 1.200.000 pezeta gosta zaio TTIPI-TTAPA FUNDAZIOARI eta horren ondorioz, 62. kanalea sintonizatuz gero, TTIPI-TTAPA ikusi ahal izanen da arestian aiputako herrietan.

Aipatu behar da Urrotz, Donamaria eta Elgorriagako udaletan lehendik sustengua emana zitzaiola TTIPI-TTAPA TELEBISTARI eta Doneztebeko Udalak ere, bere antenan errepetidorea jartzea utziz, bulkaldi berri bat eman dio proiektuari.


Berriemaileak herriz herri

Beraz, TTIPI-TTAPA ikusteko azpiegitura ezarria dago, baina orain lekuan lekuko eta herriz herriko berriak bildu eta aireratzea fal-

ta da, TTIPI-TTAPA denon telebista izateko. Ez da nahitaz kamaren aitzinean jarri behar. Zure herrian ekitaldiren bat antolatu bada, pertsonai berezi bat badago edo bitxikeriren bat gertatu bada, deitu beldurrik gabe 948 631188 telefonora.



Herriz herri saiorako ere herriz herriko berriemaileak lortu nahi dira. Sunbillan, argazkian ageri den Jaione



Askin mendian Doneztebeko Udalak utzitako antena ezarri da ttipi-ttapa telebistaren errepetidorea.

Karmele

Otxandorenak betetzen du lan hori, baina Malerrekako herrietan ere korrespontsalak behar dira. Animatu eta deitu!

Arkupeak elkarteak Lizarra maiatzaren 13an

Arkupeak jubilatu elkarteak Lizarrara joanen da heldu den ortzegunean, maiatzaren 13an. Lizarran herria eta merkatua bisitatuko dute, bazkaltzeko tenorea bitarte. Bazkaria Venta de Carrión jatetxean egingen dute, honako menu honekin: fritoak, menestra, zerrikume errea, flana izozkiarekin, ardoa, kafea eta kopa. Bazkalondoa dantzan pasatuko dute eta arratsaldeko 7,30ak aldera itzuliko dira etxera. Egun osoko prezioa 3.000 pezetakoa da eta izen emateko epea ortziral honetan, maiatzak 7 akituko da.

TTIPI-TTAPA telebista

Berriak
Astelehenetik ortzegunera, eguneroko berriak biltzen dituen albistegia aurkezten du Estitxu Fernandez lesakarrak, gaueko 9etatik aitzinera. Eguraldia, agenda eta gure bazterretako irudiak ere ikusgai dira.

Programazioa

Jokoa Solas
Asteleheneko berrien ondotik, asteburuan izandako kirol kontuak, emaitzak eta irudiak agertzen dira Felipe Saragueta beratarak eta Aitor Arozena lesakarrak aurkezten duten «Jokoa Solas» saioan.

Bidegurutzean
Asteazkenean kulturaren txanda izaten da TTIPI-TTAPA TELEBISTAN, Jon Abril beratarak aurkeztutako «Bidegurutzean» saioan: Liburu gomendioa edo Internet-en txokoa, inguruko ohiturak eta bestak...

Herriz Herri
Ortziral gauetan, herriz herriko berriemaileak norbere herriko berri berexiak ematen dituzte, Nerea Altzurik koordinatutako saioan. Merkatuko prezioak eta bertze hainbat kontu interesgarri ere agertzen dira.

Asteazkena 12 Bezpera

12etan altxaferua, trikitalariak karriketan eta ezkil-jotzea. **5etan** laxoa partida. **8,30etan** ezkil-jotzea. **9,30etan** baztan zopak. **Gauetz** mozorro dantzaldia IRUÑA BAND taldearekin. Sariak izanen dira.

Ortzegune 13 Salbatore Egune

10etan argi soinuak trikitalariekin. **11etan** Meza Nagusia, herriko koroak abesturik. **12etan** herriko dantzariak. **1etan** hameketakoa. **4etan** Bagordin plater tiraketa. **6etan** nesken futbol partidua. Arratsalde eta gauetz IRUÑA BAND. **10etan** mutildantzak.

Ortzileria 14

Haur eta Jubilatuen Egune
10etan argi soinuak herri txaranga eta trikitalariekin. **11etatik 1etara** Haurrendako Jokoak. **2etan** Oilo Jatea eta bazkaria jubilatueendako.



Nafarroako Jubenilen txapelketarako baliagarria izanen den Salbatore txirrindulari sariak 46. urtea beteko du aurten.

3,30etan Haur Jolasak. **5,30etan** txaranga herriko karriketan. **6,30etan** txokolate jatea. **10etan**

mutildantzak. Arratsalde eta gauetz dantzaldia CHICAGO taldearekin. Goizaldean txaranga.

10etan mutildantzak. Arratsalde eta gauetz dantzaldia JOSE-LU ANAIK taldearekin eta besta akabaila.

Larunbata 15

11,30etan txaranga karrikaz karrika. **2etan** herri bazkaria txarangarekin. **6etan** esku pilota partiduak. **8etan** emazteki IV. Aranabia paleta txapelketaren finala. Arratsalde eta gauetz dantzaldia eta gaupasa ARKAITZ taldearekin. **10etan** mutildantzak.

Igendia 16

10etan XLVI. Salbatore txirrindulari saria. Nafarroako jubenilen txapelketa. **10,30etan** Meza Nagusia. **11,30etan** txaranga. **2etan** Baigorriko askaldegietan gazteendako bazkaria. **6etan** aizkolari apostua. **10etan** mutildantzak. Arratsalde eta gauetz dantzaldia JOSE-LU ANAIK taldearekin eta besta akabaila.

BAZTAN ALTZARIAK zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak.
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepide nazionala, 54. km • Tfnoa: 948 45 23 74 • IRURITA



Goitian, Iruritako ikuspegia duela zenbait urte. Argazki hau postal gisa erabiltzen zen. Ondoan, herriko dantzari, txistulari eta atabalariak, 1957. urteko bestetan.



☎ 948 580618
Pedro M^a Hualde
IRURITA
PELUKERIA
ASUN VIELA

ARKUPE GOZOTEGIA

IRURITA ☎ 948 452021

ELIZONDO ☎ 948452393

Tarta bereziak eta Etxeko izozkiak

OLARI

Jatetxea



Tfnoc: 948 45 22 54

IRURITA

* Jatetxea haize egokituarekin hornitua

SUMINISTROS YANCI



- ITURGINTZA INSTALAZIOAK
- GAS ETA GASOIL BEROGAILUAK
- ERREGAILUEN MOLDAKETA ETA MANTENIMENDUA

Santiago, 82 - ELIZONDO - IRURITA
Tel.: 948 45 24 64 • 948 58 01 09

Euskararen Berriak

Arano, Areso, Goizueta eta Leitzako Euskara Zerbitzuaren argitalpena

13. zenbakia • 1999-V-6

Korrika

Aurten Korrika Leitzatik pasatu zen martxoaren 23an. 11 kilometro egin zituen Leitzan barna, hasi Uitziko gainean eta Ezkurrako gainean bukatzeko. Herriko talde eta elkarte ugari hartu zuten, eta 11 kilometro horiek honela banatu ziren: Korrika lagundu zuten herriko denda, jatetxe, taberna...; Leitzako institutua; Leitzako Udala; Irauli gazte asanblada; Aurrera Elkarte; Gestorak-Senideak; Eskola; Okille-Jubilatuak; LAB; Asketa Abesbatza; Goizuetako Udala.

Jende askok parte hartu zuen, giroa ezin hobea, eguraldia ere bikaina izan zen, eta berriz ere inguruko herriotako jendeak erakutsi du euskara maite duela. Lasterka eginez parte hartzeaz gainera, saldu diren kilometroak eta emandako dirulaguntzak kontuan hartuta Leitza eta Goizueta artean 500.000 pta pasatxo bildu dira Korrikarentzat.



UEMAren Eguna

Aurtengo UEMAren egu-



1998ko UEMAren Eguna Arantzan egin zen.

na Bizkaian egingen da, maiatzaren 16an, Zeanurin hain zuzen. Goizueta eta Leitza UEMAko partaide direnez (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea), urtero bezela parte hartzeko deia egingen dizuegu denoi. Programazioa aurreko urtekoen antzerakoa izanen da: ekitaldi instituzionala eta publikoa, bertako produktuen eta artisauen erakusketa, bazkaria, eta giro jator eta euskalduna.

Udalekuak

Euskara zerbitzuak urtero antolatzen ditu haurrentzako udalekuak, eta aurten ere egingen dugu, baina zenbait aldeketarekin. Aurrekoetan lau

herriotako umeak, eta adin ezberdinekoak, elkarrekin jotzen ziren. Aurten eskaintza aldatu egin da: 6-16 urte bitartekoentzat irekia, Alkizan (6-12 urte) eta Bidarrain (12-16 urte) egingen da. 6 edo 7 eguneko egonaldiak izanen dira, uztailan eta abuztuan joteko aukera ezberdinak eman dira, eta beste herri batzuetako umeekin batera antolatuko da.

Izena emateko epea apirilaren 12tik 16ra zabaldu zen eta eskualdeko 20 ume edo gaztetxok eman dute izena: 17 Goizueta-Aranotik eta 3 Aresotik. Leitzatik, berriz, inor ez. Horietatik 13 Bidarraira joanen dira eta 7 Alkizara.

Literatur Tailerrear egindako lanak

Azken asteotan Euskara Zerbitzuak, institutorekin elkarlanean, literatur tailer bat antolatu du. Bertan parte hartu dute Leitzako 10 bat gaztek, eta ikastarotxo honen fruitua dira gazteok egindako idazlanak. Literatura gauza atsegina denez, eta egindako lana denok estimatzea ere gauza ederra denez, gazteok idatzitakoa denon esku uztea erabaki dugu, horretarako Leitzako liburutegian kopia bat utziz. Beraz, gaurko Leitza idazle gazteok nola idazten duten jakin nahi duenak, hara jo dezake lan hauek ezagutzeko.

Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko hizkerak

Honezkerok denok edo gehienok izan duzue azken hilabeteotan argitaratu diren bi liburuen berri: «Leitza eta Aresoko hizkerak» eta «Goizueta eta Aranoko hizkerak» alegia. Leitza eta Aresokoa abenduan argitaratu zen eta Goizueta eta Aranokoa, berriz, martxoan. Biak eskuragarri daude ohiko salmenta tokietan, eta poliki saltzen ari direla ere esan beharra dago.

Hala ere, eta jende askok dagoeneko eskuartean izanen duela espero badugu ere, orrialde hauetan tokia egin nahi diogu herri hauei hain ekarpen polita egin dieten bi liburuoi.

Bertako hizkerak

Liburuen hitzaurrean esaten den moduan, «euskaldun guztiona den euskarak itxura edo jite ezberdina eta berezia hartu du herri bakoitzean, herri bakoitzak bere erara moldatu du guztiok bat egiten gaituen hizkuntza, doinuera, grazia eta molde ezberdinekin sekulako aberastasuna sortuz».

Euskaldunaren belarriak berehala somatuko du hizkera hauen arteko desberdintasuna, eta Leitzarrak Aresoko hizkera ezberdina dela ikusten duen bezelaxe, Aranoarrak Goizuetakoa bestelakoa dela ere sentituko du, nahiz eta guztiak landare bakar baten, euskararen, loreak izan.

Azken aldian, berriz, normalizazio bidean ahaleginu diren gainerako hizkuntza guz-



tiak bezela, euskara ere batasun prozesu batean sartu da, euskara batua sortu da. Honek, erderaren eragin haundiarekin batera, tokiantokiko hizkeren errealitatea

itxuraldatuko du. Itxuraldatze hori erabatekoa izan ez dadin, bertako hizkeren aberastasunari eutsi diezaiozun, eta euskalkiak ere dagokion tokia gorde dezan, ahalegin

dezente egin beharko dugu. Besteak beste, bi liburu hauek. Uste baitugu euskalkiak herrian ere baduela bere tokia, erabil daitekeela, eta herriotako hizkuntzaren normali-

Euskararen Berriak

zazio orokorraren barruan atal honi ere gure arreta eta lana eskaini behar diogula.

Herrioi nortasun berezia ematen dieten hizkera hauek, edo hizkera hauen zati bat berderen, bildu dute liburuotan egileek: Mikel Olano, Patziku Perurena eta Juan Jose Zubiri. Horretarako, hainbat laguntzaile eta informatzaile fin ere izan dute, liburuan azaltzen den moduan. Agian ez da berehala somatuko, baina orri hauen atzean ordu asko eta askotako lana dago, oso nekeza baita aditz guztien taulak jasotzea, adibidez, edota hainbat grabaketa paperera pasatzea. Edozein modutan, hizkuntzarekin eta hitzuneekin harreman estu horrek ere bere alderdi atsegina dauka, ez nolanhikoa, eta horretxek eman die lan hau prestatzeko behar zuten kemena egileei.

Liburuen edukina, antolakuntza

«Goizueta eta Leitzako hizkerak» liburuan bi atal nagusi ditugu. Lehendabizikoan Juan Jose Zubirik egiten du bi hizkera hauen deskribapena: bokalak, kontsonanteak, izenaren morfologia, aditza... eta bi hizkeren arteko konparaketa. Bigarren zatian, aztertu den hizkera horrek hiztunen ahotan nola hartzen duen forma ikusten da, Patziku Perurenak bildutako kontu, kanta, bertso eta pasadizoen bitartez.

Mikel Olanoren «Leitza eta Aresoko hizkerak» liburuan 3 kapitulu nagusi daude: Lehendabizikoan, «Areso eta Leitzako hizkerak euskalkien artean» atalean, bi hizkeren kokapena egiten da eta kokapen hori azaldu dezaketen zenbait ideia ematen dira. Bigarrenean Areso eta Leitzako hizkeren deskribazioa egiten da, nolabait esateko «azterketa linguistikoa», eta hirugarrenean ahozotasunaren altxor ttiki haundia erakusten da, herritarrekin



izandako elkarrizketen transkripzioak, esapideak, esaera zaharrak,...

Edozein moduz, hemen emandako azalpen laburrak baino askozaz aberasgarriagoa eta egokiagoa izanen litzateke lana zuzen-zuzenean ezagutu eta gozatzea, horretarako parada eskaintzen baitu.

Komenigarria iruditzen zaigu, bestalde, Euskara Zerbitzuak martxan jarri zuen beka-deialdiaren eta ondorioz sortu diren bi liburu hauen helburua gogoraraztea: alderdi

ezberdinetatik bertako hizkerak ezagutu eta sakondu nahi dituztenentzat tresna erabilgarria sortzea, edozein unetan eta edozein egoeratan erabili ahalko dena, eta erabiliko dena. Beraz, gure helburua praktikoa da eta euskalkiaren erabilerarekin lotua dago: ahoz nahiz idatziz, eskolan, euskaltegian, komunikabideetan, etxean eta edonon erabiltzeko.

Berriz ere hitzaurrean esaten dena gogora ekarriz: «Liburu hauen argitarapena, Leitza, Areso, Goizueta eta

Aranoko hizkeren aberastasuna bildu, jaso eta erabiltzeko egin behar den ahaleginaren zati bat da. Ez da agian nahikoa izanen, baina ziur gaude beharrezkoa dela. Lan hau herriotako euskararen eta, ondorioz, oro har euskararen onerako izanen delakoan egin da. Irekitako bide bat da, oraindik itxita ez dagoena, herritarren interesa piztu, atsegina izan eta euskararen normalizazioari ere bere ekarpena eginen diolakoan».

Toki-izenen etimologia



Seguraski denok pentsatu dugu behin baino gehiagotan hitz eta izen batzuen jatorria zein ote den. Askotan, toki-izenekin sortu zaizkigu horrelako galderak. Zergatik esaten ote zaio hola paraje, erreka edo baserri honi?

Askotan, erantzunik gabeko galderak dira. Beste batzuetan oso erantzun errazekoak. Gainerakoetan, erantzunen bat bilatu edo asma daiteke. Badago horretan guttian ahalegin berezia egin duen jendea, eta lan horren fruitua ikus daiteke berriki argitaratu diren bi liburutan. «Nafarroako Toponimia eta Mapagintza» saileko bi liburu dira, bata Areso eta Leitzakoa, bestea Arano eta Goizuetakoa.

Izen batzuen inguruan liburuotan esaten dena ekarriko dugu, lan interesgarri honen erakusgarri gisa:

ARANO

Urkamendi: gisa honetako toki-izenek normalean jendea hiltzeko edo exekutatzeko tokiekin zerikusia daukate. Muga-ingurua izan zenez, eraso eta enfrentamendu ugari gertatu zen eta ez litzateke harritzekoa izaneren bertan bandidoen kontrako “neurriak” hartzea.

Burninburu: burnia hitzarekin lotutako izena da. Ez dugu ahaztu behar inguru honetan burniolek garrantzia handia izan zutela.

XAGUXAR:

(*x a u x a r*)

Liburuan esaten denez, errezena da pentsatzea izen honek hego itxurako besoak dituen animalia ugaztun txikiarekin zerikusia duela, baina seguraski *Sarobetxar* hitzaren kontraktiotik heldu da. Ezin ziur jakin.

GOIZUETA

Arranbide:

batzuen ustez *arrano* + *bide* dugu hemen, «arra-noen bidea» alegia. Beste batzuen ustez, berri-*z, arrain* + *bide*, hau da, arrainarekin zerikusia duen izena izanen litzateke. Askotan, ikusten denez, zaila da erabakitzea zein den izen baten jatorria.

Erdiko Ikatzulo: *erdiko* + *ikatz* + *zulo*. Izen honek erakusten digu bertan ikatzarekin lan egiten zela. Askotan, ikatzaren inguruko jarduna desagertu bada ere, izenok betirako lekukotasuna uzten digute.

Sorginzuloko erreka: (Sorgintzuloko erreka). *Sorgin* + *zulo*. Izen honek sorgin kontuak ekartzen dizkigu gogora. Goizuetan ere izan dira horrelako kontuak, beraz.

ARESO

Lapurzulo: *lapur* + *zulo*.

Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko muga ingurua, XIII. mende inguruan, istilu eta lapurreta ugari gertatutako ingurua da.

Biureta: *bi* + *ur* + *eta* atzizkia. Bi erreka (bi ur) biltzen diren tokia. Aresoko toki honetan A tallu eta Aresoko errekek biltzen dira.

Irristaluze: *irrista* + *luze*. Garaia eta egurra jeisten zen tokia da.

LEITZA

Artzulo: *hartza* + *zulo*. Zulo honetan hartzek negua pasatzen dutela eta Leitzako azkeneko hartza duela 300 bat urte hemen hil zutela esaten da.

Urepel: oso adibide garbia: *ur* + *epel*.

Urremeatzeta: *urre* + *me-*

Aresoko ikuspegia eta Goizuetako Gaztabide.

atze + *eta*. Meatze hauetan pirita, kalkopirita, beruna eta karbonatoak daude, baina izeinak adierazten duen urrea ez omen da sekulan aurkitu.

Izen batzuk, bestalde, lau herrietan aurki ditzakegu. **Telleria** (Leitza, Goizuetan, Arano eta Areson); **Egibeltza** (Arano, Goizuetan eta Leitzan); **Egiaundi** eta **Egiluze** (Areso, Leitza eta Goizuetan, azken honetan **Egiluxe**); **Mendibil** eta **Aritzaundi** (Leitza, Goizuetan); **Irumugarrieta** (Leitza, Areso. Goizuetan: **Irumugeta**)...



EGITARAUA

Asteazkena 12

Salbatore Bezpera

Arratsaldeko 8etan: Altxafearua. **10etan** afaria eta dantzaldia MODESTOrekin.

Ortzeguna 13

Salbatore Eguna

11etan Meza Nagusia eta ondotik zintzur bustitzea Ainhoako klikarekin. **5etan** pilota partida eskuz. **Arratsalde** eta **gauz** dantzaldia EKLIPSE taldearekin. **10etan** paella jatea.

Ortziralea 14

Haurren Eguna

2etan soinualdi alegerak Dantxarineko auzoan. **5etan** haurrentako jokoak. **8etan** karaokea. **12etan** kontzertua SIERRA LAPURTANA, TXO eta ZAPOZAIN taldeekin.

Larunbata 15

Zikiro-jate Eguna

9etan plater tiroketa. **2etan** zikiro-jatea trikitixekin animatua. Gero, poteoa herrian barna. **12etan** IRUÑA BAND taldea.

Igandea 16

5etan Urdazubiko pilota txapelketaren finalak. **8etan** dantzaldia MODESTOrekin.

1983ko pilota txapelketako finalistak. Lehen mailan, Petrus eta Pakito, Juan Luis eta Feliperen kontra. 2. mailakoa, Daniel eta Martin, Montxo eta Angeltxoren kontra. Patxiku eta Javier antolotzaileak, Pantxo alkatearekin. Goitian, Juan Luis Sarratea, Juan Ramon Otegi, Antonio Sarratea, Montxo Blanco, Santi Villares eta Patxi Bengoetxea, 1979ko besten antolotzaileak.

pelketaren finalak. **8etan** dantzaldia MODESTOrekin.

Gauerdian 'Pobre de mi' eta besten akabaila.

Kategoria bereziko hostala

IRIGOIENEA

Tel.: 948 59 92 67 • Faxa: 948 59 92 43

URDAZUBI

Benta - Jatetxea - Souvenirs - Janaridenda



DANTXARINEA - faxa 948 599216 - © 948 599106

BENTA CASTRO

Camping
Ostatua

Autozerbitzua
Josenea jatetxea

☎ 948599240 • 948599011
DANTXARINEA • URDAZUBI

BEOTXEA

JATETXEA - HOSTALA

Paelletan espezializatuak

© 948 599114 - 948 599043 • URDAZUBI

PEPITA OSTATUA

Janari Denda

Tfnoa: 948 59 90 27 - URDAZUBI

M^a Cruz Plaza

Harategia

Tfnoa: 948 599008 - URDAZUBI

INDIANOA-BAITA

Jatetxea - Hostala

Ongi pasa herriko bestak

Tfnoa: 948 59 90 21 - URDAZUBI

MIKELEN BORDA

Jatetxea

Ostatua

Autozerbitzua

Tfnoa: 948 599045
DANTXARINEA
URDAZUBI

Rosa Mentaberri

Ileapaindegia

© 948 59 91 29 - DANTXARINEA • URDAZUBI

SANTIAGO VILLARES

GARRAIOAK

- Luzerna
- Agotza eta lastoa
- Luzerna - pensu granulatuen SALMENTA eta EXPORTAZIOA

© 948 59 91 34
URDAZUBI



1944. urtean eskolako mutikoak. 1. lerroan: Paulo Azkarraga, Migel Migeltorena, Aurelio Hardoy, Patxiku Laurenzena, Beñardo Eiheregarai, Ximon Etxenike. Bigarren lerroan: Joxe Mari Plaza, Esteban Zubelet, Migel Alzualde, Periko Fagoaga, Ramontxo Urtizbera, Juan Fernando Oliva, Roberto Elizalde, Battitta Aleman, Titin Fernandez, Angel Guzman. Hirugarren lerroan: Marzel Hardoy, Beñardo Etxeberria, Pantxo Iribarren, Aguxtin Chipi, Ramontxo Arrujeria, Luis Alvarez, Antonio Fernandez, Luis Mari Guzman. Laugarren lerroan: Juanito Azkarraga, Manolo Rodriguez, Juan Angel Alvarez, Josetxo Sagastibeltza, Jaime Sagastibeltza, Martin Iribarren, Juanito Barrenetxe, Mateo Arandia eta Joxe Angel Olaizola. Maestra, Don Jesus Arandia. INDIANOA-BAITAK UTZITAKO ARGAZKIAK

Faustino ETXABE Tailerrak

Autoen konponketa

Besta on batzuk pasa!

☎ 948 599038 • ZUGARRAMURDI

BURKAITZEA

Ostatu - jatetxea

Zugarramurdiko errepidea, 3 km.

☎ 948 599195 • URDAZUBI

MENTA Jatetxea


☎ 948 59 90 20

DANTXARINEA
URDAZUBI

PELLO BENTA

Ostatu - Autozerbitzua - Larrua...

Tfnoa: 948 599049 - DANTXARINEA • URDAZUBI



☎ 948 599 222 • URDAZUBI

IKABURUA Ostatu-jatetxe-erretgia

- ☛ Lehengo moduko janlekua.
- ☛ Etxeko janaria.
- ☛ Kanpoan jokuak haurrentzat.

ZUBIONDOA

**Ostatu - Autozerbitzua
Larrua (txaketak, boltsoak...)**

☎ 948 59 90 41 - DANTXARINEA • URDAZUBI

ARRETXEIA BENTA

• Autozerbitzua • Zeramika •
• Larrua • Tabakoa •

ARMUA Jatetxea

Zugarramurdiko karreteran, 3. km

☎ 948 59 91 31 - URDAZUBI



ETXELEKVA GASNATEGIA

ARDI eta BEHI GASNA
ETXEKO GAZTANBERA eta ZENBERENA

Zugarramurdiko karretera, ☎ 948 599169 URDAZUBI



**Jatetxea
Erretgia**

☎ 948 599042
URDAZUBI

BEINTZA-LABAIEN

Itur-ondo elkartearen eguna igande honetan egingen da



47 bazkideek hainbat ekitaldi prestatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, maiatzak 9, Itur-Ondo elkartearen eguna egingen da Beintza-Labaien. Garai batean ostua eta denda izandako txokoa moldatu eta elkarte gisara irekiko dute, beraz, inaugurazio ofiziala egiteko ere aprobetxatuko dute asteburua. Guzira, 47 bazkide ditu elkarteak eta auzolanean aritzeaz gain, bakoitzak hogeimila duro jarri ditu elkarte txukuntzeko. Lan egitea posible ez zuenak zerbait gehiago ordaindu behar izan du.

Elkatearen Eguna ez da igandera mugatuko. Larunbatean, gaueko 10etatik aurrera mus txapelketa jokatu da, sari ederrekin. Izen emateko, bikote bakoitzak 1.000 pezeta jarri behar du. Biharamonean, Labaingo plazan bizikletan desafioa izanen da Javier Erasun eta Jose L. Etxeberriaren artean. 12etan aizkora exhibizioa egingen du Markos Telletxeak eta gero herri kirol konbinatua, zaharrak (40 urtetik goiti) eta gazteen artean. Akitzeko, bazkari mundiala izanen da, sozioentzat eta herri kirol proban parte hartzen dutenentzat debalde. Azken hauek, maiatzaren 6a baino lehen eman behar dute izena.



**H u
zur**

rt

In z n z r h urr ztu z zu.

... ez
 ... Zur

 ... Futur

**ur IFutur urr z
 n zur tz k .**



GOIZUETA

Hiru mendi subastatuko dira egun berean

Maiatzaren 10a arteko epea ia zortzi mila metro kubiko pinu egurren enkantera eskaintzak aurkezteko

ESTEBAN AROZENA

Hiru mendi salduko ditu Udalak enkante edo subasta publikoaren bidez. Haundiena, Burugorri izeneko parajeko insignis eta alertze pinuek osatzen dutena da, 4.734 metro kubikokoa hain zuzen. Honen hasierako prezioa ia 24 milioikoa da. Arritzurietan ere, insignisak eta alertzeak daude, 1.727 metro kubikoko lotea osatzen dutelarik. Hauek ia 9 milioitan baloratu dituzte mendietako teknikoek. Ikatzolan berri, 8'4 milioietan baloratutako 1.403 metro kubikoko insignis sortaren enkantea eginen da. Maiatzaren 10eko

eguerdiko 1etan bukatzen da pleguak aurkezteko epea. Ireki berri, hiru egunetara eginen dira.

Iban Loiarde txapeldun Zizurren

Zortitik hemeretzi urte bitarteko Nafarroako pilotari onenek jokatutako dute aurten ere Zizurko buruz buruko txapelketan. Finalak apirilaren 17an burutu ziren, eta tartean, normal xamarra den bezala, bazeuden goizuetarrak ere.

11 urtekoen artean, Jon Apezetxeak ez zuen suerte gehiegirik izan, hasi orduko eskua mindu baizitzaion. Halere, gogor eutsi zion parti-



Omenaldi jendetsua Juan Migel Apezetxeari

Omenaldi jendetsu eta hunkigarria egin zuten Goizetako ekitaldiaren ondoren, 530 bat lagunek ziren frontoian egindako herri bazkari

duari, azkenean galdutako arren. Dena den, hamalau urtekoen finalean ederki aski gozatu ziren Goizetako ordezkariek saminak, Iban Loiarde eskuratu baitzuen txapelka Urrizelkiren kontrako lehia ikaragarri baten ondoren. Gainera, Ibanen pozak ez ziren hor bukatu, bera hautatu baitzuten txapelketa guzuziko pilotaririk on-

ena. Goizetarrak joko onaz gain pilota plaza izandako jarrera eta jokatzeko estiloa kontutan izan zituen epaimahaiak horretarako.

Hamalau urtekoen artean txapeldun izan zen Iban.



ARESO

Sendotza egin dute hamabi gaztek

Javier Azpiroz bikarioarekin

JUANA M^ª SAIZAR

Sendotza sakramentua apirilaren 25ean bikario berria den Javier Azpiroz eskutik hartu zuten hamabi gaztek. Aurten ez dugu herrian lehen jaunartzeko ospakizunik izango, baina poztekoa da Aresoko

Kristau Elkartean hamabi gazte hauek egin duten aukera. Meza ospakizuna ederra izan zen eta zenbait momentutan hunkigarria ere bai. Kanpora ateratzerakoan, hamaiketako goxoa esperoan zegoen, hamabi gazte hauen famuliek prestatuta.



Urrezko Eztaiak

Urrezko Eztaiek ospatu zituzten Anastasio Olazabal eta Ageda Trekuk. Bikoteak familia ederra hazi eta hezi ondoren, osasunarekin ospatu zuten beraien seme-alabak, iloba eta bilobek prestatutako meza, eta ondoren, nola ez, bazkari hobeagoarekin. Musika tresna ugari izan ziren ospakizunean, baita dantzariak ere, eta denak familiakoak.

LEITZA

Etxebizitzaren aldeko apostua egin du Udalak

Aurtengo aurrekontutik ehun milioi pezeta etxebizitzak egitera bideratuko dira

JOSEBA AZPIROZ

Industrialdeko obrak bukatutzat eman ondoren, etxebizitzaren aldeko apostu sendoa egin du Udalak. Martxoan egindako batzarrean, Udalak 581.293.029 pezetako aurrekontua onartu zuen 1999. urterako. Hauetatik 100 milioi, babes ofizialeko etxeen (Altzatean) eta familiabakarrekoen (Azkue-igerileku inguruan eta estazio ingu-

ruan) eraikuntza bultzatzera zuzenduko dira. Bestalde, aurreko urteko kontuak onartu zituzten. Diru sarrerak, 411.932.722 pezeta izan ziren eta gastuak, berriz, 385.278.431 peze-
ta.

Karrape irratia munduko herrietan zehar

Ostegunero, gaueko 9etatik 19etara, saio berezi batzuk eskaintzen ari dira Karrape Irratian.



Plazako pilota txapelketan, aurreko urteko txapeladunak: Koxton eta Manolo. Txapela berriz eramateko gai izanen ote? Argazkia: Jose Mari Azpiroz

«Munduko herrietan zehar» izeneko zortzi saioetan, Sahara, Irlanda, Kuba, Kurdistan, El Salvador, Colombia, Palestina eta Nepaleko kultura, musika, historiariaz..., informazioa ematen dute. Saioak Mikel Zabaleta (Peritz),

Altziber Bergara, Junkal Otxotorena, Aingeru Zabaleta eta David Anautek aurkezten dituzte.

Plazako eskuz binakako txapelketa

Larunbat honetan,

maiatzak 8, Plazako eskuz binakako 7. pilota txapelketa hasiko da. Dakizuenez, partidu guztiak larunbat arratsaldez jokatzeko dira. Aurten 22 bikotek hartuko dute parte, Koxton eta Manolok iaz irabazitako txapelaren bila.



Pakerako bidean Leitzako herriari

Aizan kirol elkarteak, Amnistiaren aldeko batzordeak, Aralar musika eskolako guraso elkarteak, Asketa abesbatza, Aurrera elkarteak, dantzari taldea, Eusko Alkartasuna, Euskal Herriarrok, ELA, EHNE, Elkarri, Etxetxuria elkarteak, Euskal Herriaren Euskaraz, Guratz mendi elkarteak, Herri Batasuna, IKA Leitzako eskualtegia, Ikasle Abertzaleak, Institutuko Guraso elkarteak, Irauli Gazte Asanblada, Jarrai, Jubilatuen elkarteak, Karitas, Kornietako elkarteak, Kultur taldea, LAB, Parrokia, Mendigorria elkarteak, Orain elkarteak, Pilota Eskola eta Torrea elkarteak sinatu dute Lizarra-Garazi akordioa bultzatzeko idatzia.

TTIPI-TTAPA da gure herrietan gehien zabaltzen den komunikabidea, eta gainera...

Moduloaren prezioa, bakoitzak duen hedapenaren arabera

TTIPI-TTAPA
• Modulo eta aleko: **0,23 Pta.**

DIARIO DE NAVARRA
•Astez **5,7 Pta.** / modulo eta aleko
•Igandea **4,6 Pta.** / modulo eta aleko

EL DIARIO VASCO
•Astez **5,3 Pta.** / modulo eta aleko
•Igandea **5 Pta.** / modulo eta aleko

GARA
•Astez **10,3 Pta.** / modulo eta aleko
•Igandea **7,6 Pta.** / modulo eta aleko

DIARIO DE NOTICIAS
•Astez **13,8 Pta.** / modulo eta aleko
•Igandea **11,6 Pta.** / modulo eta aleko

EGUNKARIA
•Astez **28,8 Pta.** / modulo eta aleko
•Igandea **24,7 Pta.** / modulo eta aleko

...publizitaterik errentagarriena eskaintzen duena

GAZTELU ITURGINTZA

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 948 510 086
LEITZA

Hainbat lan egitea eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuari

Bideak, zubiak eta errepideak moldatzea nahi da, gehien bat

TTIPI-TTAPA

Baztanen hainbat lan egitea eskatu dio Balleko Udalak Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide Departamentuari:

- Amaiurren zubi berria egin, 1992az geroztik egin beharrekoa.
- 121-B errepidetik Lekarozera gateko zubia moldatu edo berria egin. Ibilgailuen harat-honata dexente haunditu da zubi honetan, Institutua, aterpea, igerrilekua, kirol zelaiak... direla eta.
- Amaiurrera sarrera berri bat egin, Dantxarriena-Elizondo norabidetik.
- Oronoz-Mugairi, Arraioz, Irurita eta Elizondo-Elbete zeharbidetako zola harrotu eta berritu.
- Irurita-Lekaroz bidea zolaberritu, garai bateko Iruritako estaziotik.
- Orabideko errepidea moldatu, Askapeko harrobitik, Oronoz eta Arraiozko alkateen eskariarekin bat eginez.
- Belatetik Almandoz eta Berroetako irteeretan, Berroeta, Ziga, Aniz eta Almandoz herrien izenak agertzen diren seinaleak jarri.
- 121-B errepidetik Azpilkuetara doaien



Garai bateko jantziak Nafarroaren Eguna eta Hamabi Ordu Eskuaraz bestetarako

Larunbat honetan Elizondon eta aitzineko igandean Baigorri ospatutako Hamabi Ordu eskuaraz eta Nafarroaren Eguna bestetarako jantziak lortu zituzten Baztango dantzariak. Baigorri Julian Romano musikaria omentzea zen helburua eta Elizondon, Santiago Bidea Baztandik pasatzen zeneko garaiak gogoratzea. Lortzeaz gain, zenbait emakumek egin ere egin dituzte jantziak, garai hartako ereduak hartuz.

errepidea moldatu.

- Amaiurko sarrera baino lehen Ehiztari elkartek duen granjako bihurtzea moldatu.
- Bergarako bihurtzean dagoen mugarria kendu.
- Belateko errepide zaharrei azken solte dabilzkan seinalea jarri.
- Saihesbidearen inguruan, Arraiozko kanala estali, Arraiozko alkateak egindako eskariarekin bat eginez.
- Baztango begiralekuan dagoen aparkalekua moldatu.

Baztandarren Biltzarrako kartel lehiaketarako deia zabaldu da

Uztailaren 18an ospatuko den Baztandarren Biltzarra iragaritzeko kartel lehiaketa deia zabaldu du Baztandarren Biltzarra elkarteak. Lanak, maiatzaren 14ko eguerdia baino lehen egon behar dute antolatzaileen esku (22 P.K., 31700 Elizondo), gisa honetako lehiaketetan izan ohi den sistema erabiliz.

Epaimahaiak kartel bakarra aukeratuko du eta irabazleak 50.000 pezeta sakeleratuko ditu. Kartelaren neurriak 70x50 zentimetrokoak izanen dira, gehienez, eta honako testua agertu beharko dute: «Baztandarren Biltzarra 99. Elizondon uztailaren 18an. Eskuarak batzen gaitu». Xehetasun gehiago B.B. elkartean daude eskura.

flash

❖ Baztandarren Tonbola

Aurten ere Baztandarren Tonbola antolatu du Baztandarren Biltzarra elkarteak. Horregatik, egun hauetan denda-denda dabilta sari eskean. 1.600 sari inguru zozketatzea espero da, eta saririk gabeko boletoen artean hiru bidai zozketatuko dira Baztandarren Biltzarra egunean.

❖ Moldaketak Elizondon

Antxitoneako zubia eta Elizondoko korralaren plazan arkupean dagoen zatia lehenbailehen moldatzea eskatu du Elizondoko alkateak. Bere ustez, bi gai hauek lehenatasuna dute herrian. Bertalde, ortzegunetan Abastos plazan egiten den azokaren administrazioa eta biltzen den dirua, berriz ere Elizondoko herriarentzat izatea eskatu du. Bi lehendabiziko eskariak onartu ditu Balleko Udalak eta azokaren afera, industria, komertzio eta turismo batzordeak eztabaiatzeko utzi du.

❖ Amaiurko kanposaindu zaharra itxia

Amaiurko kanposaindu zaharra behin betikoz itxi da eta bere lekuan aparkalekua eta parke bat egiten dute. Azken hamar urteotan, kanposaindu berria egin zenetik, ez dute inolurperatu elizaren ondoan dagoen hilerria. Baldintza hori beteta hilerria bertirako ixten ahal da.



BAZTAN FUNERARIA

EHORZKETA ZERBITZUAK
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
TRASLADOAK

Menditurri, 1 • ELIZONDO • ☎ 948 580373 • 608 776176

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. km.

AMAIUR • Tfnoa: 948 453 060

BAZTAN

Bortz udal langileren lanpostu deialdiko oinarriak aldatu dira

Lehen deialdian eskatzen ez zen euskara titulua eskatuko da

TTIPI-TTAPA

Balleko Udalak, lehiaketa-oposizio birtartez bortz langile hartu nahi ditu, kultur koordinatzailea, kirol koordinatzailea, mekanikan espezialdutako zerbitzu anitzetarako langilea eta bi atezain, hain zuzen. Lehiaketa deialdia gan den urte akabailan egin zen, baina LAB sindikatuak errekurtoa sartu zuen, euskara titulu ofiziala eskatzen ez zelako.

Baztango udalak errekurtoan eskatzen zena ontzat hartu du baztarrean, EA eta HBren aldeko botuekin eta UPNren aurkakoeekin. Honela, gainerako baldintzekin batera, euskararen ezagutza Hizkuntz Eskola Ofizial baten emandako ziurtagiri batekin egiaztatu behar da edo bertzenaz, hizkuntz maila nahikoa duela erakusten duen proba bat gaititu behar da langile gaiak.

UPNko ordezkariaren ustez, lanpostu hauek betetzeko eskatzen den hizkuntza maila «dis-



Ekoeskolaren Bidean Kultur Astea burutu zen ikastolan

Martxoaren 26tik 31 arte Baztan Ikastolak Kultur Astea ospatu zuen, «Ekoeskolaren bidean» lelopean. Egin ziren ekintza desberdinen artean eskulan tailerra antolatu zen, apaingarriak eginez material birziklatuz. Hemendik hiru urtera, lana ongi egin bada, Europako Kontseiluak ikurriña berdea emanen dio Ikastolari.



krinatorioa da Baztango bizilagunendako».

HBko ordezkariaren ustez, ordea, «logikoen, batez ere UPNrentzat, legea betetzea izanen litzateke. Eta legeak 5. maila eskatzen

du». HBren arabera, «euskaldunak izan dira historikoki diskriminatutak egon direnak, baita Balleko Etxe honetan ere».

Bertzalde, kirol koordinatzaileari zegokion deialdiari bertze erre-

kurtso bat sartu zion Nafarroako Soin Hezkuntzako Irakasle eta Lizentziatuen Kolegio Ofizialak. Errekurtso hau ez du onartu Udalak, alkateak hartutako erabakia erekin bat eginez.

flash

❖ **San Markos prozesioa**

Zigan urtero egiten den San Markosera-ko prozesioa apirilaren 25ean izan zen. Euria eginagatik, jende aunitz joan zen Auzkue auzoan dagoen ermitarat.

❖ **Kurdoei elkartasuna**

Balleko Udalak bere elkartasuna adierazi dio herri kurdoari eta herri bezala dagozkion eskubiak errespetatzea eskatu du. Mozioaren alde EA eta HBko zinegotziek bozkatu zuten eta UPNkoak abstenitu ziren.

❖ **Elizondoko karrika bazterrak**

moldatzeko aurrekontua 10.223.039 pezetakoa izan da. Oraingoan egoera ikusiz, lanak lehenbailehen hasi nahi dira eta horretarako lehiaketa eginen da.

❖ **Osasun Zentroen telefonoak**

Telefonicako listinean gaizki ageri dira Elizondoko Osasun zentroko eta Gartzaingo kontsultako telefonoak. Elizondokoak 948 581832 /581833 eta Gartzaingoa 948452183.

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

JATETXEA
© 948 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

ARGIBEL OPTIKA
© 948 581 391
Santiago 62 - **ELIZONDO**

Aukera zabala

- Anteojoak
- Lentillak
- Audifonoak
- Errebisioak

SARA



Trinketeko pala txapelketaren finalak

Joan den apirilaren 17an Pleka Trinketean abenduaren erditan hasitako pala txapelketa burutu zen. 120 bikote aritu dira lehian, hiru multzotan banaturik. Lau hilabete ondoren bikote hauek ateri dire garaile: Lissardi-Suzanne urruñarrak (argazkiaren eskuinean), finalean Cazamayor eta Berho garaituz (ezkerrean); 2. mailan, lehen multzoan, Lorenzena senperra eta Lafitte urruñarra; bigarren multzoan Eceiza-Biraben urruñarrak eta 3. mailan Cazaux-Tapia uztaritzetarrak. Aipatzekoa da txapelketan saratar ainitzek parte hartu zutela baina ezta batek ere lortu finalean posturik. Agian ondoko egunetan hasi beharra den Xoko lehiaketan suerte gehiago izanen dute!

Urrats Gaua larunbatean ospatuko da

Arratsalde eta gauetz musika izanen da Saran

ANA MARI, MARTINE ETA FRED

Aurten ere, bertze urteetan bezala, Herri Urrats bezperako kontzertua ospatuko da herrian. Usaian bezala, Senpereko bidea larunbatetik hartu dute nek, ongi etorria izanen dute gure herrian. Besta arratsko 7etan hasiko da. Hor izanen ditugu Mutxikoak,

Ezpeletako txaranga, Berako Zizkuitz txaranga eta Xapre, karririkaz karrika ibiliko direnak.

Ondotik, Estitxu Fernandez, Estitxu Arozena, Amets Arzallus eta Xabier Silbeira bertsolariak upatuko dira taula gainerat beren bertsoen botatzerat. 9,30etan kontzertuaren tenorea izanen da. Jojo

eta Ramuntxoren kantu goxoen ondotik, Arrasateko Ekon taldeak eritmo biziagok eskainiko ditu eta Aztlan Underground estatu batuarek, Saran emanen dute iparraldeko kontzertu bakarra. Gaua bururatzeko, Ekintza taldeak jarriko gaitu dantzan. Besta ederra egiteko parada euskararen alde!

Aparkatzeko mugak plazan

Berrikuntza lanen ondorioz

Herriko plazan egin obrak berriki bururatu dira eta ez da dudarik itxura ederra hartu duela. Horren zaintzeko, Herriko Etxeak jakinarazten die herritar guzietari, hemendik aitzina ez dela autoa aparkatzeko eskubiderik ondoko lekuetan: Herriko Etxeko terrazatik pilota plazako aparkalekua mugatzen duen marra-

raino; pilota plazako gaineko bide bazterrean eta Kurriertegiko karrikan. Bertzalde, plazako dendarieri autoa inguruko aparkalekuetan uztea galdatzen zaie, bertzeentzat lekua atxikitze gisan. «Saran astia» dio erran zaharrrak, egia denbora behar harko dugula plazan egin beharrekoak egiteko. Baina kirola ez da nehorrentzat kalte...

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENZIA

- **Zurich Aseguruak**
 - Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
 - Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
 - Errenta Deklarazioak, IVA...
- **Inmobiliaria**
 - Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
 - Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago 15 - Tínoa eta Faxa: 948 580804 - ELIZONDO



Maderas GOMEN

- Era guzietako atek, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • © 948 580 645

7. Trial Lehiaketa

Apirilaren 11n, Sarako herrian antolatu du 7. urtekotz Moto Trial lehiaketa. Goizeko euriak ez du jendea izitu, hala nola 69 partaide prest ziren Axuriaren arrokak gainetik pasatzeko. Motoa maite baduzue, ikusten ahalko duzue Frantziako txapelketak Itxasun ekainaren 20an.



SENPERE

Herriko saltzaileek batasun berria sortu dute komertzioa biziberritzeko

Kezka badute saihebidetaren proiektuarekin

FRANCK DOLOSOR

Saltzaileek beharrezkoa ikusten dute komertzioa indarberritzea, bizia ematen baitiote herriari eta enpleguak sortzen dituztelako. Kezka bat ere bada saihebidetaren proiektuarekin: bide berria egiten bada hiri-erdia baztertua izanen da orain Uztaritzen gertatzen den bezala. Saltzaileen elkarrekin harremanak egin nahi ditu Herriko Etxea, Merkatal Industri Ganbara eta Baionako Ofizioen Ganbarekin. Xedea da animazioak proposatzea. Lehen hitzordua amen bestaren kari ospatuko da.

Bizi Garbia elkargoan kide berriak

Bizi Garbia herrien arteko zikinkerien elkargoak hiru partaide gehiago ditu. Senpere, Donibane Lohizune, Ahetze, Sara, Bidarte eta Ainhoa ziren orain arte, berrikitan Arbona, Arrangoitze eta Basusarri juntatu zaizkiote. Bizi Garbia sindika-



Korrika Senperen barna

Korrika herritik pasatu delarik gan den martxoaren 20an, jende frango poliki bildu da, nahiz eta goizeko 6etan izan. Senpereko AEK aski kontent agertu da herritarrek erakutsi duten atxikimenduarekin.

teko partaide izanez, herriek erabiltzen ahal dituzte Senpereko Zalua, Bidarteko Bazilur eta Donibane Lohizuneko Fapa zikin biltegiak.

Bisitari gutiago izanzen gan den udan herrian

Turisma sailan lan egiten dutenen arabera,

bitisitari gutiago izan den udan herrian. Udako bakantzak berantago izateak kalte egiten dio turismari, nonbait.

Halere, agorrian jende gehiago izan da usaian baino, bainan aintz gutiago ekaina, uztaila eta buruilan.

Turismo Bulegoak dioenez, 9.600 familie-

tan banatu du informazioa eta harremanak azkartu ditu ondoko herrietako bulegoekin, kanpainak elgarrekin egiteko.

Duela guti, Montreal ala Tolosan Lapurdiren berri eman dute turistik izan daitezkenek eskualdearen berri izan dezaten. Heldu den udan nabaritutako dugu, agian.

flash

Konfirmazioa...

Herriko gazteek maiatzaren 16an ospatuko dute konfirmazioa.

...eta lehen jaun-hartzea

Ondoko igandean, maiatzaren 23an, lehen jaun-hartzea izanen da. Komunione egunean Kristoren gorputza hartuko dute lehen aldikoz, aurtun 9 urte dutenek.

Erroten besta

Eurtengo erroten besta ekainaren 13an iraganen da. Egun berezi horren kari errota bisita daitezke.

Amotzeko bestak

uztailaren 16, 17 eta 18an izanen ditugu. Amotzeko besta komitean gazteak lan egiten dute den-dena prestatzeko.

Herri Urrats

Erran beharrik ez da igande huntan Herri Urrats ospatuko dela aintziran. Urtero bezala, milaka euskaltzale espero dira.

Kutxa Kutxa Kutxa
Kutxa Kutxa Kutxa Kutxa
Kidetza berri bat!
Kutxa 7, Portuko KARRIKA-64700 Hendaia
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei
Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa. **948 631188**

ZUGARRAMURDI

Xorroxin Irratia ongi aditzeko antena berria jarriko da

Soilik bortz zinegotzi hautatuko dira aurten

MARGARI ETA KORO

Orain arte Xorroxin Irratia Zugarramurdi eta Urdazubin ez da aditzen. Dirudienez orain antena kokatua dagoen tokitik (Legate mendian) ez da errex hemen aditzea. Hori dela eta ETBko antena dagoen toki berean Xorroxinek bertze antena bat jarri nahi du modu honetara arazorik gabe aditu ahal izateko. Lan hoiek gastu haundia dutenez, Udaletara dirulaguntza

eskatu da eta Zugarramurdiko Herriko Etxeak 100.000 pezeta ematea erabaki du. Beraz, laster Xorroxin behar den bezala aditu ahal izanen dugu.

Bortz zinegotzi Herriko Etxean

Herriko biztanle kopurua ttikitzen ari dela eta bertze batzutan sumatzen bada, orain udal hauteskundeetan ere sumatuko da: Udala osatzen duten zinegotzi kopurua, biztanleen ko-

puruaren arabera da eta azkeneko zentsoak 239 biztanle garela dienez, orain arte zazpi zinegotzi baldin baziren, hurrengo hauteskundeetatik bortz bakarrik hautatu beharko ditugu.

Kilimiliklik taldeari dirulaguntza

Herriko Kilimiliklik Teatroak bere propaganda egiterakoan lezoko propaganda barne sartzen duenez, gan den urtean bezala, aurten ere Herriko Etxeak dirula-




Ekaineko udal hauteskundeen ondotik zazpi zinegotzi izatetik bortz izatera pasatuko gara.

guntza ematea erabaki 46.640 pezetakoa izadu, aurtengoa xuxen 46.640 pezetakoa izanen da laguntza hori.

ASCAT  
Grupo Asegurador CAIXA CATALUNYA

ETXEBIZITZA ASEGURUA



zure etxebizitzako zaindaria

Zure etxebizitzan behar dituzun garantia guztiak dituzu gure etxebizitza aseguruan


ASEGURUAK

Parrokia 21
Tel.-Fax: 948 450266
DONEZTEBE



AUTO ESKOLA

Saskaitz plaza
Tel.: 948 580 077
ELIZONDO

EZKONTZAK

Jose Bernardo Billabona Saralegi eta **M^a Arantzazu GogorzaAlduntzin**, Leitzakoak, apirilaren 24an.

Jean Michel Bizkaitxi eta **Marie Thérèse Iciaga**, Senperekoak, apirilaren 17an.

Aitor Bera eta **Karine Ibarra**, Senperekoak, apirilaren 17an.

André Sarthou eta **Françoise Olhagaray**, Senperekoak, apirilaren 24an.

Fernando Etxegarai Mikelperizena, eta **Josune Fagoaga Lopez**, Berakoak, apirilaren 17an.

JAIOTZAK

Lierni Oteiza Migeltorena, Oronoz-Mugairikoa, apirilaren 13an.

Joseba Galindo Leiza, Leitzakoa, apirilaren 17an.

Julen Inda Zarranz, Doneztebekoa, apirilaren 19an.

Imanol Tapia, Sarakoa, apirilaren 15ean.

Eneko Etxeberria, Senperekoak, apirilaren 9an.

Estelle Pocino, Senperekoak, apirilaren 10ean.

Morgane Sein, Senperekoak, apirilaren 23an.

Elorri Laxalde, Senperekoak, martxoaren 24an.

Miren Jauregi Agirre, Berakoa, apirilaren 20an.

Yolanda Perez Sanz, Berakoa, apirilaren 20an.

HERIOTZAK

Joaquin Mortalena Iturriria, Erratzukoa, apirilaren 24an, 78 urte.

Claudio Erbiti Baraibar, Leitzakoa, apirilaren 25ean, 93 urte.

Angela Elizondo Zelaieta, Narbartekoa, apirilaren 17an, 84 urte.

Agustin Etxebeste Bergara, Arantzakoa, apirilaren 20an, 67 urte.

Manuel Taberna Endara, Alkaiagakoa, apirilaren 24an, 83 urte.

Gabriel Aldabe Irigoien, Igantzikoa, apirilaren 4an, 74 urte.

Antonio Alegria Erezuma, Doneztebekoa, martxoaren 29an, 73 urte.

ZORIONAK!

Oparia ematen lehenak izan nahi dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin bete, ematen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXA



Manuel TABERNA ENDARA

*Urak dakarrena
urak daroa
zuk emandakoa
gurekin geldituko da.*

TTIPI-TTAPA Fundazioa

Manuel TABERNA ENDARA



*Udaberriko lore ederrak
erortzen dira negura...
zure ondoan bizi oso bat
pasatu dugu gustura
Gure baitara bildua zaude,
oroitzapenen portura,
nahi dugunean junta gaitzen
lagun kuttunen modura.*

Pilar, Bixente, Manolo, Bittori, Mikel, Sonia, Marisol, Idoia, Beñat, Garazi, Itxaro eta Ibai.

Alkaiagan, 1999ko apirilaren 25ean.



Adur LAZKANO OLABERRI

*Zeruan ageri diren
izar guztietan
zurea dugu
polit eta ederrena
maiz begiratuko diogu berari
Agur, Adur.*

Leitzako Ikastetxe Publikoko Ikasle,
Guraso, Langile eta Irakasleak.

Mila korrikalari baino gehiago Leitza eta Lesakako Herri Laisterketetan

- Rafa Maritxalar lesakarra nagusitu zen bere herrian egindako proban
- Iruñeko Agustin Garcimuño izan zen azkarrena Leitzaan

Rafa Maritxalar lesakarra nagusitu zen apirilaren 18an Lesakan burututako Herri Laisterketan. Batzoki elkarteak zazpigarren urtez antolatutako proba honetan 663 korrikalari bildu ziren. Maritxalarrek 23 minutu eta 22 segundu behar izan zituen zortzi kilometroak burutzeko. Ondotik, Altsasuko Mario Lopez eta Antonio Bru beratarra sartu ziren, 22 eta 45 segundutara. Emakumeen artean, Marisol Martínez beratarra izan zen azkarrena, Arantxa Aldalur azpeitiarra eta Nieves Cibicos lasartearren aitzinetik. Proba herrikoari dagokionez, Javier Urria irundarra gailendu zen, Juan Carlos Korta donostiarra eta Patxi Pikabea beratarren aitzinetik. Aspateko ezinduek ere bi kilometroko ibilbidea osatu zuten eta Miguel An-



Laurehun korrikalarik parte hartu zuten Leitzaoko Herri Laisterketan.

gel Perez nagusitu zen. Proba nagusia baino lehen, goizean goiz hasita, hamasei ikastetxetik etorritako neska-mutikoak aritu ziren korrika. Tikienen artean, David Comerón eta Itziar Telletxea izan ziren garaile; Aurrebenjaminetan, Intz Iriarte eta Itxa-

so Olariz; benjaminetan, Telmo Ugarte eta Marian Garrancho; alebinetan, Igor Rodriguez eta Ainara Gallego; infantiletan, Juan Mari Mendoza eta Aratz Rodriguez; kadetetan, Arkaitz Gartzandia eta Oihana Almandoz; jubeniletan, Mikel Mutu-

berria eta Junior mailan, Mikel Etxart eta Amats Maiztegi.

Agustin Garcimuño Leitzaan garaile

Apirilaren 25ean Leitzaan burutu zen Aurrera el-

karteak eta Irauli Gazte Asanbladak antolatutako Herri Krosa.

Laurehun korrikalari inguruk parte hartu zuen eta Iruñeko Agustin Garcimuño izan zen garailea, hamar kilometroak 32 minutu terditan egin ondotik. Bigarrena Ander Otegi donostiarra izan zen eta hirugarrena Aingeru Mindegia leitzaarra.

Emakumeen artean, Josune Tercero gailendu zen, Durangoko Ane Egizabal eta Donostiko Ane Artetxeren aitzinetik. Tikienek ere izan zuten beraien tarte proba honetan. Benjamin mailan Ander Aranburu eta Joana Barriola izan ziren txapeldun; alebinetan Asier Landa eta Amaia Jauregi; infantiletan Juan Mari Mendoza eta jubeniletan Garikoitz Asensio eta Edurne Etxeberria leitzaarra.

50. urtebetetzea garaipen berri batekin ospatu du Mikel Mindegia aizkolariak

Mikel Mindegia Ezkurako aizkolariak herri kirolaren historiaren barnean tarte berezia izanendu, dudarik gabe. Euskal Herriko txapela hamar aldiz jantzi du eta Nafarroakoan hamahiru aldiz izan da garaile. Bertze hainbat apostu, norgehiagoka eta marka egiten ere saiatu da eta gehienetan berearekin aterri da. Apirilaren 26an 50 urte bete zituen Mindegia, mende erdi, baina ez dirudi erretiro asmo haundirik duenik.

Egun bat lehenago Laz-

kaon jokatu zuen Urrezko Aizkora Sariari zegokion kanporaketa. Aitzinean, Floren Nazabal zuen, sasoi beteko aizkolari gaztea. Baina, indarra ez ezik, esperientzia eta jakinduria ere beharrezkoak dira aizkoran eta horietatik soberan ditu Mindegia. Erakustaldi ederra egin zuen eta hasieratik akabaila arte nagusi izan zen. Aizkolari bakoitzak 45 ontzako bi enbor, lau kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi 72 ontzako moztu behar izan zituen. Lehen enborretik jarri zen aitzin-

etik irabazlea, hiru segundu ateratzen zizkion Nazabali eta horrela segitu zuen denbora gehituz. Lan guztia akitzeko 27 minutu eta 2 segundu behar izan zituen eta Nazabalek 28 minutu eta segundo bat. Orain, Mindegia Peñagarikano izanendu kontrario finalurrekoan, maiatzaren 15ean Arraten, baina aitzinetik 50 kanaerdiko moztu nahi zituen igande honetan Tolosako zezenplazan.



Mindegia aisa hartu zuen mendean Nazabal Urrezko Aizkoraren saioan.



➔ **Ander AGESTA eta Rafa ERRANDONEA** *Arantzako pilotariak*

Nafarroako klub arteko txapelketan jaun eta jabe

Goiko argazkian ageri denez, orain dela urte mordoxka hasi eta oraindik ez dira txapelak irabazteaz aspertu Ander Agesta eta Rafa Errandonea Arantzako pilotariak. Azkenekoa, berriki irabazi dute bikote eginez: Nafarroako klub arteko txapelketa, 22 urtez behetiko mailan. Iruñeko Obere-na elkartearen izenean 22 eta 13 irabazi zioten finalean Larraungo Azpiroz eta Bernali. Gibelean jokatzeko duen Rafa Errandoneak dioenez, «partidu gogorra izan zen, baina tantuak gure aldera erori ziren eta zapela ekarri genuen Arantzara». Agestak gogoratzen duenez, «finalerditan Irurtzunen kontra jokatu genuen (Vilches eta Begino) eta nahiko aisa irabazi genuen».

Binaka jokatuakoa ez ezik, eskuz esku jokatuakoa finala elka-

rren kontra aritzea suertatu zitzaizen astebete beranduago. Finalerdian Agesta Bernalen kontra aritu zen eta Errandoneak Iriarten kontra.

ESKUZ ESKUKO FINALA ELKARREN KONTRA

Finalean, berriz, Agestak 18 eta 9 irabazi zion Errandoneari. Halere, Rafa Errandoneak tranpa tiki bat izan zela dio irrifartsu: «Binakako finalean Ander lasai-lasai aritu zen eta pilota aunitz utzi zizkidan, toreroarena eginez. Bakarkako finale-ra deskantsatua ailegatu zen eta horregatik irabazi zuen». Rafak ere, irrizon artu du taktika berria hori.

Biak arantzarrak izanik, harritzekoa dirudi Iruñeko Obere-na taldearen izenean aritzea. Anderrek argitu digu zantzantza: «Beran estudiatu genuen hamasei urteak arte eta hemendik Iruñera joan ginen Nekazaritza ikastera. Obere-nakoak beraiekin entrenatzea eskaini ziguten eta hortik sartu ginen».

Norberaren ezaugarri onenak eta akatsak ikustea zaila izaten denez, lagunarenak aipatzea eskatu diegu bi arantzarrari. Agestaren ustez, Rafa Errandonea pilotari gogorra da: «Azken tantua egin arte

ez du pilota bakar bat ere galdutzat uzten, gogor saiatzen da».

Errandonea atzelariak dioenez, berriz, «Anderrek kriston sakea du eta defentsan ere hagitz ongi ibiltzen da, boleaz-eta. Orain arte bazuen huts tiki bat, ez-kerrarekin nahiko juxtuan ibiltzen zen, baina hori ere hobetu du eta hagitz ongi ikusten dut».

Klub arteko txapelketa honetan erakutsi dutenez, banaka nahiz binaka ederki moldatzen dira, baina gustorago nola aritzen diren galdetu diegu. Agesta binaka gustorago aritzen da: «Zuk hutsegiten baduzu, laguna beti hor duzu laguntzeko». Errandonearen errantetan, ordea, «beti banaka titulu bat lortzen baduzu meritu gehiago du eta ilusio gehiago egiten dizu, baina binaka ere, beti biek elka-

rrekin aritzen gara eta gustora».

«PROFESIONALETARA PASATzea EZ DAGO GURE ESKU»

Etorkizunera begira, hainbat txapelketetan parte hartu beharko dute bi arantzarrak, bertzeak bertze Elgetako lau terdian, Barañain, Irun edo Tolosan. «Uda partean, batez ere, hainbat eta hainbat partidu jokatu beharko ditugu» diote biek. Profesionalerako pausua, berriz, zailagoa ikusten dute. Rafak ongi dioen bezala, «afizionatutan gauden guzieren gustatuko litzaiguke, baina hori ez dago gure esku».

Agestaren palmare-sa hobea da oraingoz, nahiz eta bere ustez «palmare-ttikia» izan. Jubeniletan ETB-DV txapelketa irabazi du eta 20 urtez azpitikan Espainiako txapelketa.



“Anderrek kriston sakea du eta defentsan ere hagitz ongi ibiltzen da, boleaz-eta”.

Rafa Errandonea

“Rafak azken tantua egin arte ez du pilota bakar bat ere galdutzat uzten”.

Ander Agesta

AGENDA EGUNEZ EGUN

SOLASALDIAK

ELIZONDO

► Maiatzaren 6an

Benedicto Agirre Urdaubi eta Zugarramurdi-ko medikua. Gaia: pertsona zaharren gaitzak. Botikak egoki erabiltzea. Loarekin arazoak.

ELIZONDO

► Maiatzaren 7an

Elizondoko Arizkunenean Jose Mari Otaegi ELA-Nafarroako idazkariak eta Santi Lorente LABekoak maiatzaren 21eko grebari buruzko informazioa emanen dute. Arratseko 8etan.

BERA

► Maiatzaren 14an

Elizondoko hitzaldi berria egingen da arratseko 8etan Kultur Etxean. Bi hitzaldien aitzinetik auto karabana ateriko da Doneztebetik.

BERA

► Maiatzaren 7an

Artis Mundi erakusketa-aren barrenean, Maximiliano Tonelli artistaren solasaldia. Gure Txokotan.

BESTAK

IRURITA

► Maiatzaren 12tik 16ra Salvatore bestak.

URDAZUBI

► Maiatzaren 12tik 16ra Salvatore bestak.

ANTZERKIA


BERA

► Maiatzaren 7an Ander Lipus antzerkilariak "Ardoz" izeneko bakar-lana eskainiko du Pui ostatuan, arratseko 10etatik aitzinera. Gero Caroline Phillips eta Mixel Ducau ariko dira.

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
13:00	Herriz-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.) Bidegurutzean	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herri
21:30	Jokoa Solas		Bidegurutzean		Herriz-herri



Herri Urrats 99 ttipi-ttapa telebistan

Maiatzaren 10ean programa berezia izanen da

Xoko guzietako euskaltzaleak biltzen dituen besta honetan ttipi-ttapa telebistak ere ez du hutsik egingen, eta hantxe izanen dira gure kamarak, aintziraren inguruan gertatzen den guziari so. Horrela, eguneko irudirik politenak eta protagonistetako batzuk astelehen gauean izanen dira zuen etxetako pantailetan.

Bertzalde, Malerrekako berrietan aipatu dugun bezala, dagoeneko hasi gara herri hoietan emititzen, baina berrie-maile edo korrespontsalak behar ditugu horretarako.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 3.000 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 136 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 65 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra540
1.koa510
2.koa480
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra550
1.koa530
2.koa500
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 28.000 Pta.
- Mestizoak:** urruxak 30.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Berandu da gelditzeko»

Unai ITURRIAGA

SUSA

Orain dela aste batzuk "Zazpi Eskale" taldeak bere azken kontzertuak eskaini dituelako egon da Unai Iturriaga prentsaren begipuntuan. Hala ere, bere lehen eleberria argitaratu du berriki bertsolari-kantari-idazleak, eta horrek ere merezi izan du aipamen bat edo berteze. Guztiarekin, bere burua bertsolari soil-tzat du Iturriagak, berteze biak bigarren mailako afizioak omen

direlako beretzat. Aspaldixko idatzi bazuen ere, urtebete pasatuta erori da Susa argitaletzekoen eskuetan, eta haiek erabaki dute argitara ematea. Pertsona baten biziak denbora tarte tikiak ze aldaketa ematen ahal dituen isladatu nahi izan du Iturriagak, eta on-dorioa zera da: behin pausu hori ematen denean ez dagoela atzera egiterik.

JAKIN BEHARREKOAK

Etxebizitza erosten

«Etxebizitza erosi dut, uz-tailaren 1ean eman beharra, apirilean gaude eta oraindik ez dira eraikitzen hasi...», «egiterakoan guztiz aldatu dute etxearen itxura...», «administradoreak erran dit nire komunitate kuota bertzeena baino haundixeago dela...», «saltzaileari erreklamatu diot eta ez dit jaramonik egin...».

Gure bulegoetan egunero entzuten ditugu horrelako ke-xak. Izan ere, etxebizitza erosteko sekulako gastua egin ondok izugarritzko amorrazioa eta ezintasuna sortzen dute horrelako arazoek. Zoritxarrez, gaur egun harritzekoa da eraikuntza haundietan gisako zerbait ez gertatzea, baina oraindik harri garriagoa da saltzaileak arazoekin kargu egitea.

Nolanahi ere, ustekaberik ez izateko lehenbiziko pausua etxebizitzaren inguruko informazio zuzena idatziz jasotzea da.

Lehenik, erran behar da publizitateak etxebizitzaren ezaugarriak eta bere egoera zein diren azaldu behar duela, eta gero bertan aipatzen dena nahitanahiez bete behar dutela. Eroslearendako berebiziko garrantzia du etxea emateko eguna publizitatean



Informazio guziaz eman behar dute etxe-saltzaileek, publizitatean ere bai.

eta kontratuan agertzea. Honela, ez badigute garaiz ematen kontratua deuseztu eta ordaindutako dirua berreskuratu ahal izanen dugu.

Edozein gisatan, etxebizitza eraikitzaile eta sustatzaileak, argibide hauek jarri behar ditu jendaurrean: saltzailearen izena eta bere Merkataritza Erregistroko inskrip-

zio-datuak. Etxebizitza eskuz aldatzen den lehen aldia baldin bada, arkitektoa eta eraikitzailearen izena eta helbi-deak.

Eraikuntzaren ezaugarriak dagokielarik, etxebizitzaren plano eta kokalekuaren plano orokorra eman behar digute; baita etxebizitza, eraikuntza osoa, gainerako zerbitzu eta amankomuneko eremuen deskripzioa; eraikuntzan erabiltako materialak eta sistemen ezaugarriak; neurri guztiak etabar... erabiltzen diren materialak ere zehatz-mehatz agertu behar dute, eta dena idatziz, hitzez adosten dena maiz ez baita gauzatzen eta eroslea alferrik saiatzen da gero adostutakoa frogatzen.

IRATXE KONTSUM. ELK.

Maiz gertatzen da etxea nolakoa den jakin gabe erostea, edota etxebizitza akitzeko egunik ageri ez duen kontratua sinatzea.

DISKAK



«Badira hiru aste»

Mikel URDANGARIN

GAZTELUPEKO HOTSAK

Bakarlariaren honen bigarren lana da honako hau, nahiz eta lehenbiziko diska ez zen sobera hedatua izan. Gaztelupeko Hotsak disketxearen babesean atera da "Badira hiru aste" lana, eta eskertzekoa da etxe hori euskal talde eta kantautore berrien alde egiten ari den saiakera (horrek duen arriskuarekin). Urdangarinen boz dardarti eta

gitarrarekin batera Euskal Herriaren azken urteetan argitaratu diren diskoen erdian-edo erritmoak sartu dituen Luis Camino perkusiolaria somatuko dugu. Hala ere, perkusioak baino protagonismo haundiagoa du biolinak, Jonathan Bews eskoziarraren biolinak. Alkohola, sexua, maitasuna eta bertze zenbait gai landu ditu Mikel Urdangarinek.

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IBILALDIAK

ELIZONDO

► Maiatzaren 9an

Herri Urrats. Baztango Medigoizaleak mendiz joanen dira Senpererat.

BERA

► Maiatzaren 9an

Herri Urrats. Larun Mendi Taldekoak oinez joanen dira Senpererat.

► Maiatzaren 16an

Berako IV. Mendi Itzulia. Agerra Mendi Taldeak antolatzen duen martxa neurtua.

HERRI URRATS

SENPERE

► Maiatzaren 9an

Senpereko aintziran Seaskaren aldeko besta.

GAUPASA

SARA

► Maiatzaren 8an

Herri Urrats bezperako besta. Txarangak, bertsolariak eta kontzertuak: Jojo eta Ramuntxo, Ekon (Arrasate), Aztlan Underground (EEBB). Gero berbena izanen da Ekintza taldearekin.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnoa. deitu behar da

► Maiatzaren 3tik

9ra: Bera, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

► Maiatzaren 10etik

16ra Eixalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Maiatzaren 17tik

23ra Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015923 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdut / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BULDAIN

LEITZA erdialdean bi pisu eta Amazabal goian bajera salgai daukat. 13, 12 eta 2 milioi pezeta.

☎ 649 476 615 • 948 510 346

ADOS

BERA.
- Pisu batzuk salgai.

☎ 607 978 656
☎ 948 451 841

LEITZA. Pisua salgai edo errentan emateko Amazabal auzoan. Bi trastero. ☎ 948 452 284.

LEITZA. Pisua eta bajera salgai Patxi Arrazola auzoan. ☎ 948 510 012.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

Eskaera haundiagatik, bordak, baserriak, lur-eremuak, etxeak, bajeerak etab. erosi nahi dira.

☎ 607 978 656 • 948 451 841

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

IRUÑEA. San Gregorio karrikan pertsona euskalduna behar dugu pisua osa-

tzeko. ☎ 630 511 760 (Maite) edo ☎ 630 484 271 (Pili).

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA

Denda salgai

Herri erdi-erdian, martxan dagoen janaridenda traspasatzen da. 70 m². Informazio pertsonala.

☎ 929 010 790 (arratsaldetan)

BERA. 23 m²ko bajera salgai. Ura eta argia. ☎ 948 630 412.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

Bajera bat (prestatur) errentan emateko. Mendizabal ostatuaren aurrean. ☎ 948 510 167.

LURRAK/ORUBEAK

115 ERRENTAN HARTU

LEITZA. Belartso bat errentan hartu nahi nuke. ☎ 948 510 669.

ZERBITZUAK

208 BERTZELAKOAK

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

LANA

301 ESKARIAK

Zapatak josteko pertsonak behar ditugu Baztan-Malerreka inguruan. ☎ 948 580 093 (eguerdiko 12etatik 2etara).

Emakume bat behar dugu udan etxeko lanetan aritzeko. ☎ 948 630 734.

Beran emakume euskalduna behar dugu haurrak zaindu eta etxea garbitzeko. Ordutegia: 9etatik 17etara. ☎ 943 398 286 (goizez).

Berako jatetxe batean emakumea behar dugu su-

kaldean aritzeko. ☎ 948 387 045 (9,30etatik 18,30etara).

LANA

302 ESKAINTZAK

Anizko neska eskaintzen da haurrak zaindu edo Basaburuako eskualdean garbiketara aritzeko. ☎ 948 393 055 (gauetz).

Ezkontza elizkizunetan kantatzen dut (Ave Maria, Panis Angelicus, e.a.) ☎ 948 610 697 (Maite) Gauetz deitu.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Renault Megane DTI 100 zaldikoa, urdin metalizatua, 97ko abutzukoa. 37.000 km. ☎ 948 163 081.

Nissan Sunny salgai. 16 V, 59.000 km eta NA-AK matrikula. Egoera onean. ☎ 948 630 482.

Fiat Ducato furgoneta salgai, kanpinerako prestatur: frigoa, sukaldia... ☎ 948 637 344 (Koikili).

C-15 Diesela salgai. NA-AT, 28.000 km. Urdin metalizatua. ☎ 948 631 429.

Rieju 49 motoa salgai. Berri-berria dago, 2.000 km. Sei hilabetekoa. ☎ 943 216 852 edo ☎ 943 313 080.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Land Rover Santana (motzak eta luzeak), VW Polo, Corsa GSI, R-11 eta Ford Courier.
Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

BERABI tailerrak

☎ 948 631 445-BERA

Opel Corsa, Ibiza D, R. Express D, Terrano I (5 urte), Patrol eta BX

GANIX Tailerrak

Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

ANIMALIAK

601 OPARI EMATEKO

Zakurkumeak oparitzeko ditut, setter eta grifon arrazen nahasketa. Bi hilabetekoak eta emeak dira. ☎ 948 451934 edo 943 627677.

Katakumeak opari emateko. ☎ 948 637 891.

Bi zakur salgai, 9 eta 4 urtekoak. Merke, ekentzeko dire. Koneju eta erbian ari direnak. ☎ 948 599 289.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Husky arrazako **2 zakurkume** eme salgai, bi hilabete-koak. ☎ 948 514 021 / 948 514 209.

Lau miga (hiru pirenaika eta bertze bat suiza) eta beste behi pirenaiko bat salgai. Zezen pirenaikoa bi urtekoa salgai. ☎ 943 528 128.

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Airedale-terrier arrazako **txakurra galdu da Urdazubin**. Beltza eta marroia da, belarri bat tente eta bestea okertua eta belarriak tente ditu. Kixkur izena du eta lepokoa darama. ☎ 948 887505. Sarituko da.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

La San Marco **kafetera industrial**a salgai. Bi iturri eta bere molinilloarekin. ☎ 948 510 215.

200 litroko **esne tankea** salgai. Egoera onean. ☎ 948 630 423.

30 joare salgai. Erabiliak daude baina egoera onean. ☎ 948 514 061.

Belarra igotzeko tresna, 430 litroko **esne-tankea** eta 750 kiloko **erremolkea** salgai. ☎ 608 974 777.

Belarra biltzeko **autokargadora** erosi nahi dut bere traktorearekin. ☎ 943 552 723.

Ordenadorea salgai: Inves Covadonga Pentium 100. 70.000 Pta. Informazio gehiago Bortziritako Euskara Mankomunitadean. ☎ 948 634 125 (goizez). Deitu maiatzaren 14a baino lehen. Interesatuena artean zozketa eginen da maiatzaren 17an.

Same Explorer 80 **traktorea salgai**, bere palarekin. Sunbillan. ☎ 948 450 767.

Peavey gitarra anplifikadorea salgai. Estereo, Chorus 400 (Fly-Casearekin), 2 kanal estereo independenteak (130 W), saturazioa, eq. parametrika, Txorus-Vibrato-revert. Egoera arrasonean. ☎ 948 630 217 (Fermin).

Kanpindenda-erremolkea salgai. Lesakan. ☎ 670433 157.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Mutil gazte bat naiz eta hemengo mutilekin adiskidetasun eta posta trukea izan nahi dut. Idatzi Barañaingo 5067 Posta Kutxatilara.

Erdaraz ere bai.

Zorionak Elizondoko **M^a Encarnación Telletxeari** apirilaren 16an 17 urte bete dituelako. G. eta L.ren partetik.

Arrasateko Ainhoari: kriston 'tigría' egina zaude. Grr, grr... Bikti.

Ander Ortuosteri: Susi, Susi, Susi... ah, ah, ah... La

Famy.

Josebe Aragoneri: Ohean sartu bezain laster zure gorputza maindireen artean egiten duen mugimendu goxo hori somatzen. Hemendik aurrera nik ere, horien tartean denbora gehiago pasatzea erabaki dut. Badakit ni gabe ezin duzula bizi.

KULTURKARI

publizitatea zerbitzuak

Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa.: (+ 34) 948 63 11 88 / Fax: (+ 34) 948 63 12 91

Diseinu eta publizitatean, zerbitzu integrala

- Irudi korporatiboa** ▼ **Publizitatea prentsan**
- Logotipoak** ▼ **irratian eta**
- Foiletoak** ▼ **telebistan.**
- Aldizkariak** ▼ **Publizitate**
- Katalogoak** ▼ **kanpainen**
- Diseinua** ▼ **antolaketa**



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeo, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko. Argazkia itzultzea nahi baduzue sobre bat eta helbidea bidali.



Zumi Txoperena Eugi igantziarrak urtea beteko du maiatzaren 7an. Zorionak zure familiaren partetik.



Alex Abuin Yepes ek 7 urte bete ditu maiatzaren 1ean. Zorionak Ander, Beñat, guraso eta lehengusuen partetik.



Juan Luis Etxeberria arantzarrak maiatzaren 4an urteak bete ditu. Zorionak eta muxu bat emazte eta alabaren partetik.



Beñat Erkiiza beratarrrak urtea bete du apirilaren 27an. Zorionak Aintzane eta Eiderren partetik. Muxu bat.



Arantzako **Elixabet Elizondori** zorionak bere lehengusinarekin partetik maiatzaren 6an 2 urte beteko dituelako. Bi muxu.



Markel eta Jabier Maia Sadaba lesakarrak 8 eta 4 urte bete dituzte apirilaren 29 eta 26an. Aunitz urtez!



Arantzako **Donato Lizardik** apirilaren 29an urteak bete ditu. Zorionak Aitziberren partetik.



Jon Zelaieta Danboriena beratarrrak maiatzaren 5ean 9 urte bete ditu. Zorionak eta muxu bat Uxue, ama, atta eta amatxiren partetik.



Mertxe Zelaieta Oskoz igantziarrak maiatzaren 9an urteak beteko ditu. Zorionak Uxue eta Jonen partetik.



Martin Mazizor eta Isabel Zubieta Lesakako ama-semeek urteak beteko dituzte apirilaren 29an eta maiatzaren 20an. Zorionak familiaren partetik eta bereziki, Paola eta Jonen partetik.



Goizuetako **Larraitz Salaberria** zorionak apirilaren 25ean bi urte bete dituelako. Aita eta amaren partetik.



Goizuetako **Yoni Salaberria** zorionak apirilaren 25ean bi urte bete dituelako. Aita eta amaren partetik.



Joseba Irazoki Goienetxe etxalartarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta muxu bat ama, aita eta famili guziaren partetik.



Mikel Telletxea Garmendia donamariarrak 13 urte beteko ditu maiatzaren 10ean. Zorionak guraso, Oihana eta Josuren partetik.



Alfonso Rey Martinez beratarrrak 32 urte beteko ditu apirilaren 23an. Zorionak!



Igor Petrirena Bengoetxea beratarrrak 14 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak ama, eta Aritzzen partetik.



Ane Etxepetleku Burgete lesakarrak urtea bete du maiatzaren 2an. Zorionak familiaren eta bereziki ama eta amaren partetik.



Asier Etxeberria lesakarrari zorionak. Zer moduz mobiliarekin!



Urozko **Marixoleri** aunitz urtez maiatzaren 6an urteak beteko dituelako. Zure nesken partetik.



Andoni Lazkanotegi Matxiarena beratarrrak 2 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Muxu haundi bat ama eta amaren partetik.



Uxo Bertiz Ayuso elizondarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 5ean. Zorionak ama, eta Emmaren partetik.



Begoña eta Maitetxu lesakarrak 2 eta 5 urte beteko dituzte maiatzaren 8 eta 10ean. Aupa Bittiriako printzesa! Aupa Kottroti!



Jon Zelaieta beratarrrak maiatzaren 5ean 9 urte bete ditu. Zorionak Igantziako familiaren partetik.



Unai Olaziregi Urkiola beratarrrak urte bat bete du apirilaren 29an. Zorionak familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Ander Maritxalar beratarrrak 9 urte beteko ditu maiatzaren 7an. Zorionak zure familia guziaren partetik.



Mikel Zubieta Albistur beratarrrak maiatzaren 15ean 20 urte beteko ditu. Zorionak Josune Anduezen partetik.



Josu Alzuri aurtiztarrrak maiatzaren 11n beteko ditu 5 urte. Zorionak familia guziaren partetik.



Leire Organbide Elizagoien aranzarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 5ean. Zorionak!



Andoni Lazkanotegi Matxiarena beratarrrak maiatzaren 12an bi urte beteko ditu. Bi muxu Maria eta Mattinen partetik.



Maitane Altzuguren Arregi etxalartarrak 7 urte beteko ditu maiatzaren 15ean. Muxu bat Unai, ama eta amaren partetik.



Ander Baratze Arana: Zorionak lazтана. Maite zaitugu. Ez ahaztu gutaz.



Ioritz Kañameres Bertiz iruindarrak maiatzaren 5ean 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Mikel Oteiza arantzarrak maiatzaren 31n 2 urte beteko ditu. Zorionak bere familiaren partetik.



Maite Altzuguren Ramos ek maiatzaren 18an 2 urte beteko ditu. Zorionak eta musu haundi bat Oihane, atxa eta amaren partetik.



Silvia Telletxea Iraola arantzarrak maiatzaren 3an bete ditu 5 urte. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Elixabet Elizondo Lukanbio arantzarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 6an. Zorionak ama, eta familiaren partetik.



Maider eta Amaiak maiatzaren 9 eta 21ean beteko dituzte urteak. Zorionak familiaren partetik.



Izaro Retegiri zorionak maiatzaren 4an 6 urte bete dituelako. Bere guraso, Garazi, Lesakako ataxi-ama-txi eta Igantziako ataxiren partetik.



Pakita Ibarra sunbilarri zorionak, 92 urte beteko baititu maiatzaren 8an. Bere seme-alaba guzientzat partetik, eta bereziki Ameriketara dituen bi semeen partetik. Aupa amatxi! Segi baratzea zaintzen.



Mikel Ezkieta Huizi atarrabiarrrak maiatzaren 4ean 5 urte beteko ditu. Zorionak Beñat, ama eta amaren partetik. Ondo pasa!



Mikel Zubieta Albistur beratarrrak maiatzaren 15ean 20 urte beteko ditu. Zorionak ama, aita eta lazkunen partetik. Aupa txapeldun!



Maialen Irigoien Fagoaga lesakarrak 8 urte beteko ditu maiatzaren 10ean. Zorionak familiaren partetik.



Maitane Irigoien Fagoaga lesakarrak 12 urte beteko ditu maiatzaren 25ean. Zorionak familiaren partetik.



Irati Arozena Almandoz goizuetarrak 12 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak guraso, Julen, Aitor eta Jonen partetik.



Ibai Iturria Garmendia beratarrrak 11 urte beteko ditu maiatzaren 7an. Zorionak familiaren partetik.



Iosune Guerra eta Iraitz Astiz leiztarrek 5 urte beteko dituzte maiatzaren 10ean. Zorionak Garbiñe, Patxi eta Xabierren partetik.

INMOBILIARIA BERRIA

G **KLASE GUZIETAKO ERAIKUNTZAK**

Etxe berriak, industri nabeak...

G **ETXE BERRIEN PROMOTORE**

Norbaitek bere lurretan eraiki nahi baldin badu, hitzeginen dugu. Bultzatzeko prest gaude.

G **INMOBILIARIA ZERBITZU ZABALA**

- Inguru osoan: Leitza, Iruñea, Donostia, Tolosa
- Etxeak saldu eta erosi, errentan hartu eta eman
- Ikasleendako pisuak Iruñean, Donostian...

G **VASCO-NAVARRA ASEGUROAK**

Aseguroak orokorrean

LEITZAN


Patxi Arrazola, 41 - 1. D
31880 LEITZA

- Tfnoa:948 510 346
- Mugikorra:649 476 615
- Faxe: 948 610 962



ORDOKI ALTZARIAK Estilo ugariko mogleak

K aitatea prezio egokian



ERAKUSKETA

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALTOKIA

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780

LESAKA

LOGELAK • EGONGELAK • TRESILLOAK • KUTXAK • BESAUAK...

HEDAPENAREN NEURKETA

ttipi-ttapa

Egunkari guztiak batera baino etxe gehiagotan

SALMENTA KOPURUAK ASTEGUNETAN ETA IGANDETAN (1999/04/26)

	Diario de Navarra	EL DIARIO VASCO	gara	DEIAK	Egunkaria	Noticias	PARIS edo MADRIDeko egunkariak	DENETARA	ttipi-ttapa
BAZTAN	493-782	86-120	74-110	5-7	17-28	157-211	0-0 29-77	861-1.335	1.504
Baztan ⁽¹⁾	493-782	86-120	74-110	5-7	17-28	157-211	0-0 29-77	861-1.335	1.504
BORTZIRIAK	151-221	619-863	185-303	9-14	55-82	56-78	0-0 41-87	1.116-1.648	2.115
Arantza.....	2-2	12-15	13-15	0-0	5-4	2-2	0-0 0-0	34-38	173
Bera.....	50-95	285-420	80-162	3-6	25-47	16-32	0-0 19-47	478-809	949
Etxalar.....	20-35	40-70	30-50	2-4	8-12	4-7	0-0 2-2	106-180	189
Igantzi.....	7-7	35-45	5-8	0-0	0-1	4-6	0-0 0-0	51-67	156
Lesaka.....	72-82	247-313	57-68	4-4	17-18	30-31	0-0 20-38	447-554	648
LEITZALDEA	112-207	123-211	98-158	3-6	24-30	40-57	0-0 13-23	413-692	1.004
Arano.....	0-0	8-14	1-3	0-0	1-1	0-0	0-0 0-0	10-18	42
Goizueta.....	2-2	45-67	30-40	0-0	6-6	0-0	0-0 0-0	83-115	217
Leitza - Areso.....	110-205	70-130	67-115	3-6	17-23	40-57	0-0 13-23	320-559	745
MALERREKA	250-430	98-177	49-82	1-2	13-21	47-70	0-0 18-43	476-825	1.197
Doneztebe.....	175-335	83-157	35-61	1-2	8-14	29-51	0-0 15-38	346-658	358
Ituren.....	0-0	0-0	8-13	0-0	2-3	3-4	0-0 0-0	13-20	121
Sunbilla.....	35-55	15-20	5-7	0-0	1-2	9-9	0-0 3-5	68-98	181
Herrietan ⁽²⁾	40-40	0-0	1-1	0-0	2-2	6-6	0-0 0-0	49-49	⁽²⁾ 537
SARALDEA	12-35	9-11	10-20	1-1	9-13	11-22	475-610 41-56	568-768	563
Sara.....	0-0	3-3	2-4	1-1	3-4	0-0	110-195 10-10	129-217	143
Senpere.....	0-0	6-8	2-2	0-0	3-3	0-0	365-415 31-46	407-474	250
Urdazubi.....	2-18	0-0	2-7	0-0	2-4	1-5	0-0 0-0	7-34	87
Zugarramurdi.....	10-17	0-0	4-7	0-0	1-2	10-17	0-0 0-0	25-43	83

DEIAK	19-30	<i>Saltoki eta posta zerbitzuko datuak</i>
Egunkaria	118-174	
Noticias	311-438	Lehen zenbakia astegunetako salmenten kopurua. Bigarrena, berriz, igandetako salmenten kopurua.
gara	416-673	
EL DIARIO VASCO	475-610	
Diario de Navarra	935-1.382	
DENAK BATERA	1.018-1.675	
ttipi-ttapa	3.292-4.982	
	7.014 ⁽³⁾	

PUBLIZITATE ERRENTAGARRIENA

Moduloaren prezioa, bakoitzak duen hedapenaren arabera

TTIPI-TTAPA

• Modulo eta aleko: **0,23 Pta.**

DIARIO DE NAVARRA

• Astez **5,7 Pta.** / modulo eta aleko

• Igandea **4,6 Pta.** / modulo eta aleko

EL DIARIO VASCO

• Astez **5,3 Pta.** / modulo eta aleko

• Igandea **5 Pta.** / modulo eta aleko

GARA

• Astez **10,3 Pta.** / modulo eta aleko

• Igandea **7,6 Pta.** / modulo eta aleko

DIARIO DE NOTICIAS

• Astez **13,8 Pta.** / modulo eta aleko

• Igandea **11,6 Pta.** / modulo eta aleko

EGUNKARIA

• Astez **28,8 Pta.** / modulo eta aleko

• Igandea **24,7 Pta.** / modulo eta aleko

⁽¹⁾ Baztan osokoak batera emanak daude, postaz hartzen direnak barne.

⁽²⁾ Malerreka eta Bertizaranako herri guztietako kopuruak batera daude, Doneztebe, Ituren eta Sunbillakook izan ezik, postaz hartzen direnak barne.

⁽³⁾ Harpidedun guztiak, eskualdetik kanpokoak barne.